



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen Praktika Onak Ekintzailetasunean



Lan hau Jabetza Intelektualaren Legepekoa da. Atxikitutako eskubide guztiak Lege horrek babesten ditu, baita beraren itzulpen, inprimaketa, irati, telebista edota Internet (web orrialdeak) bidezko erreprodukzio, edota beste edozein mekanismo erabiliz, eta datuak prozesatzeko instalazioetan biltegitratzea ere; nahiz zati bat bakarrik erabili.

HITZAURREA

Praktika On ezberdinak biltzen dituen liburuxka hau UNEK ETA UNEK+ proiektukoetako emaitza da, zein Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako "Ikasten duen Lurralde gisa, sustatzeko" programari esker gauzatu den. Praktika On hauen helburua Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeak Ekintzailetasun arloan lagundu, garatu eta indartzea da.

Zehatz, liburuxka honen helburua UNEK eta UNEK+ proiektuetan parte hartu duten Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen artean identifikatutako Praktika Onak azaltzea da. Kasu hauek garapen fase ezberdinetan aurkitzen dira eta aktibitate mota ezberdinak azaltzen dituzte (adibidez, I+Gn lankidetza, ekintzailetasuna), irakurleari bere erakundean ekintzailetasuna nola sustatu laguntzeko.

Kasu guztiak era berdinean deskribatzen dira, estruktura berbera jarraitu; lehenik eta behin Informazio Orokorra azaltzen da, jarraian Kausa bera deskribatzen da (nola garatu eta finantzatu den, ze emaitza lortu duen, izan duen inpaktua, etab.) eta bukatzeko informazio gehigarria azaltzen da.

Kasuak irakurri eta zuen lankideekin edota beste aditu batzuekin partekatzerara eta eztabaidatzera animatzen zaituztegu, eta edozein zalantza edota komentario izanez gero jarri harremanetan dagokion autorearekin.

Argitalpen honen bitartez Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak bere kolaboratzaileekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatea, TECNUN eta UNED, Ekintzailetasun Akademikoa eta Unibertsitate Ekintzailea bultzatu nahi ditu.

AURKIBIDE OROKORRA

Sarrera

Parte hartu duten erakundeen deskribapena

Praktika Onen deskribapena

SARRERA


Gutxienez azkenengo bi hamarkadetan Unibertsitate Ekintzailearen inguruko eztabaidak ematen ari dira (Etzkowitz et al., 2000, Tuunainen, 2005). Unibertsitate Ekintzailea kudeaketa eredu gerentzialetara jotzeko tendentzia dauka, eta bere helburu akademikoa nagusienetako bat sektore enpresarialerako transferentzia da (Spila et al., 2011). Unibertsitate zehatz honek hirugarren misio bat gehitu dio bere hasierakoei, zein sektore enpresalera aktiboki elkartzea den unibertsitatean garatutako ikerketari esker sortutako ezagutzak sozial eta ekonomiko balorizatuz (Etzkowitz, 2003).

Bere bizitza osoan zehar unibertsitateak hainbat aldaketa izan ditu bere misioan, rol garrantzitsu bat lortu arte garapen ekonomiko eta sozialean. Aberastasuna sortzeko eragile garrantzitsu batetan bilakatu da, beraren ezagutzetan oinarrituta sortutako enpresa berrien bitartez.

Unibertsitatearen misio nagusia (lehenengo misioa) irakaskuntza izan da, zehatzago esanda, ezagutzen kontserbazioa eta transferentzia (Etzkowitz, 2003). Hala ere, XIX. mende amaieran "lehen iraultza akademikoa" eman zen, non unibertsitatearen misio nagusia ikerketa bilakatu zen (bigarren misioa), ezagutzen transferentzia bigarren plano batetan utziz. Azkenik, 80ko hamarkadaren erdialdean, "bigarren iraultza akademikoa" gertatu zen eta unibertsitateak hirugarren misioa gehitu zuen, garapen sozio-ekonomikoan laguntzea (Morales 2008). Unibertsitate eredu berri honek "Unibertsitate Ekintzailea" du izena.

Nahiz eta adostasunik ez egon Unibertsitate Ekintzailearen definizioan (Guerrero eta Hirigintza, 2010), hainbat egilek azaldu dute Unibertsitate Ekintzailea ezaugarri multzo batez osatzen dela (Gibb, 2012). Izan ere, ezaugarri hauek Unibertsitate Ekintzailea gauzatzen duten faktoreetan bilakatzen dira (Rothaermel et al., 2007, Guerrero et al., 2011). Hori dela eta, UNEK eta UNEK+ proiektuetan, Goi Mailako Hezkuntza Erakundeek Heldutasun Eredua garatu da Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeek ekintzailetasun maila neurtzeko asmoz.


Azterketa honetan oinarrituta, hainbat puntu indartsu identifikatu dira ikerketan parte hartu duten Erakundeetatik; beti ere ekintzailetasun ereduan oinarrituz. Hau dela eta, argitalpen honek Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeetan egiten diren Ekintzailetasuneko Praktika Onak biltzen ditu.



1. Irudia: Heldutasun ereduan aztertutako faktoreak

UPV / EHU

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU AURKEZPENA

Euskal Herriko Unibertsitatea Euskal Herriak bere unibertsitatea izateko historian zehar egindako saio-erreskadaren emaitza da, gizarte dinamiko eta moderno baten premia ugariei erantzuna emateko ahaleginen fruitu.

1980an gaurko izaera bereganatu zuen, Bilboko Unibertsitate zaharrean oinarrituta eta 1936ko Euskal Unibertsitatean inspirazioa hartuta. Eduardo Chillidak egindako ikurra hartu zuen, eta Iparragirrereren bertso-lerro ezaguna erantsi zion: Eman eta zabal ezazu, euskal kulturaren bokazio unibertsalaren ispilu. UPV/EHU indarrez betetako errealitatea dugu gaur. 50.000 kide baino gehiagok osatua, Euskadin egiten den ikerketaren %70 egiten du, eta milioi laurden bat titulatu sortu ditu jakintzaren hainbat eta hainbat arlotan.

Hiru campusetan banatuta dago -gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzeko bat- eta 32 fakultate eta eskola dauzka. EHUK ekarpen erabakigarria egiten dio Euskal Herriari, halako moduz non gaurko Euskal Herria pentsaezina litzatekeen unibertsitateak egunero egiten dion ekarpena barik, eta haren inguruan sortzen den eztabaida intelektual bizi eta aberatsa gabe.

TECNUN



tecnun Universidad de Navarra


TECNUN AURKEZPENA

1961an hasi zen Donostiako Ingeniari Goi-Eskola bere jarduera akademikoak ematen, Lehen Areagotze Metalurgia Programarekin. Urriaren urte bere hartan hasi zituzten Industri Ingeniariko ikastaro arruntak eta, Telekomunikazio Ingeniaritzakoak, 2000ko urrian. Donostiako unibertsitateko campuseko gaur egungo egoitza, Ibaeta auzoan, laborategi eraikinak, 1967an zabalduak, 1989an bukatutako irakaskuntza eta ordezkaritza eraikina, eta erabilera anitzeko eraikinaz (1996an eraikia) osatua dago.

Gaur egun, Eskolak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak onartzen dituen bost titulazio ofizial irakasten ditu, ingeniari eta doktore graduetan: Industri Ingeniaria, Telekomunikazio Ingeniaria, Industri Automatika eta Elektronika Ingeniaria, Industri Antolamenduan Ingeniaria eta Materialetako Ingeniaria. Halaber, beste lanbide ekintzak (seminarioak, ikasturteak eta master programak) burutzen dira gradu-ondokoei bideratua.

Ingeniari Eskolako ikerkuntza lanak Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerketa Tekniko Zentroarekin (IITZ) batera garatzen dira, laborategiak eta liburutegia bien artean partekatuz. Honela, ikerkuntza zientifikoak, beharrezkoa unibertsitate erakunde batean, IITZ bezalako Ikastetxe baten interes praktikoa osatzen du, industriarekiko zerbitzuan izaera berezi bat edukiaz.

GEP – MU



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA

ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR

GEP-MU AURKEZPENA

MGEP kooperatiba MONDRAGON Korporazioa eta Mondragon Unibertsitatean sartuta dago, eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren titular juridikoa da. Bere jarduera nagusiak prestakuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza dira.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak 1943an ekin zion irakaskuntzari. Jarduera horren sustatzailea On Jose M^a Arizmendiarrrieta izan zen, Mondragon kooperatiba-esperientziaren sortzailea. Ordutik, Eskola etengabe hazi da, eta makina bat enpresa-esperientzia berritzaile sortzen lagundu du.

Eskolaren historiako une garrantzitsu bat ULGOR Kooperatiba Elkartearen sorrera dugu, kooperatiba-mugimenduko lehen industria-kooperatiba izan baitzen. ULGOR, gaur egungo FAGOR, 1956an sortu zuten bost ingeniari teknikok. Ildo horretan, ALECOP industria-kooperatibaren sorrera ere nabarmendu behar da. 1966an hasi zen ekinean, ikasleei ikasketak eta lana bateratzeko aukera eskaintzeko nahiak eraginda. FAGOREko bazkide da, hain zuzen.

Beste alderdi batzuei dagokienez, 1972an bultzada handia eman zitzaion nazioartean zabaltzeko asmoari, Eskolak lehen harremanak finkatu baitzituen atzerriko unibertsitateekin. Horretaz gain, 1986tik, partaidetza aktiboa izan du nazioarteko Heziketa eta Ikerketa eta Garapen Proiektu ugarian.

1995ean, Goi Eskola Politeknikoari ER353/ 1/95 ISO kalitate-agiria eman zioten. Agiri hori lortu zuen Espainiako lehen unibertsitatea, eta Europako lehenengoetakoa, izan zen.

1996an, CEI-SAIOLAN enpresa eratu zen, sektore aurreratuetan enpresa berriak irekitzen laguntzeko. Dena den, 1984tik horretan zebiltzan jadanik, eta emaitza onak ari ziren lortzen.

Azkenik, 1997an, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Mondragon Unibertsitatea eratu zuen, Debagoieneko beste bi unibertsitatearekin batera: Oñatiko ETEO Koop. E.rekin eta Eskoriatzako Irakasle Eskola Koop. E.rekin batera, hain zuzen. Gaur egun, aipatutako bi unibertsitateak ENPRESAGINTZA eta HUHEZI dira, hurrenez hurren.

2003-2004 ikasturtean, zilarrezko Q saria eman zioten, EUSKALITen kanpo-ebaluazioan 400 puntu baino gehiago lortzeagatik.

2008an, ingeniaritza-ikasketak Europako Goi Mailako Hezkuntza eremura egokitu zituen EAEko lehen unibertsitatea izan zen.

TKnika

Tknika

LANBIDE HEZIKETARAKO BERRIKUNTZA ZENTROA
CENTRO DE INNOVACIÓN PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL

Tknika aurkezpena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa da Tknika, eta berrikuntza nahiz aplikatutako ikerkuntza ditu funtsezko ardatz. Egunez egun egiten du lan Euskal Herriko Lanbide Heziketa Europako abangoardian kokatzeko helburuarekin.

Erreterian kokatuta dago, eta sarean egindako lanaren bitartez, Lanbide Heziketako irakasleen inplikazioarekin, Tknikaren erreferenteak munduko eredu aurreratuenak dira: teknologia, prestakuntza eta kudeaketako esparruekin lotutako berrikuntza proiektuak garatzen ditu.

Bere eginkizuntzat hartu du berrikuntza Euskal Herriko Lanbide Heziketa uztartzeko ardatz bihurtzea, ingurune eta ikaskuntza-prozesu berrietan aurreratzea eta konpetentzia-etena gutxitzea, ideia edo teknologia bat jaiotzen denetik, gizarteak haren emaitzak baliatzeko unera bitartean. Horretarako bitarteko ditu produktu eta zerbitzu berritzaileen zaintza teknologikoa, diseinua, garapena, ezarpena eta transferentzia, Kudeaketa, Prestakuntza, Teknologia eta IKTak nahiz e-Learning Arloetan, Lanbide Heziketako zentroetara eta haietatik enpresa-sektorerara eramanez. Enpresa, unibertsitate-ikerkuntzako sail eta zentro teknologikoekin hitzarmenak finkatzera irekitako lankidetzaren dinamika erabili du, sareak sortzea, talde-lana eta sormena sustatuz.

IEFPS

Aretxabaletako

Lanbide Eskola

GLHBI



Aurkezpena: IEFPS Aretxabaleta Lanbide Eskola GLHBI

Pertsonak lan munduan txertatzea bideratzeko prestatzen dituen Goi Mailako Lanbide Heziketako zentroa da Aretxabaleta Lanbide Eskola, inguruko enpresen premien arabera. Ikastetxe integratua da: hasierako prestakuntza eskaintzen du, erdi eta goi mailako teknikoak prestatuz, eta langileentzako etengabeko prestakuntza nahiz langabeentzako bideratutako lanerako prestakuntza ere bai. Horrez gain, gure desafioetako bat da Deba garaiko enpresei hobetu lagundu ahal izatea, eta, prestakuntza-premien diagnostikoen arabera, euren langileentzako "neurritza" egindako ikastaroak eskaini ahal izatea.

Aretxabaleta Lanbide Eskola 1978an jaio zen, Lanbide Heziketako Eskola moduan, Leniz Lanbide Ikastegia izenarekin. 80.eko hamarkadatik aurrera, matrikulazioa handitu egin zen, eta ingurutik zetozen irakasle berriak txertatu ziren lantaldean.

1983an eraiki zuten gaur egungo eraikuntza, udaletxeak utzitako lursailean, eta Eusko Jauraritzaren Hezkuntza Saileko sareko partaide bihurtu zen. 90.eko hamarkadaren bukaeran, HSAOLEkin lanbide familien arabeko banaketa berria hasi zen, eta Arrasate eta Aretxabaletako institutuek bat egin zuten, bigarren hezkuntza eta derrigorrezkoaren osteko hezkuntza osoa eskaintzeko helburuarekin. Bat-egite horren ondoren, Aretxabaleta Lanbide Eskola lanbide hezkuntza osoa irakasten hasi zen.

ENPRESA IDEIEN LEHIAKETAK



GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR



Aurkezpena: Enpresa Ideien Lehiaketak

Hainbat BHIItako "ideia berrien lehiaketen" praktika egokiaren hainbat adibide jaso dira, eta, horiek bateratuz, praktika egoki bat osatu da. Azpimarratzeko adibideak erakutsi dituzten ikastetxeak honako hauek izan dira:

Alde batetik, bi unibertsitate fakultate: lehen deskribatu ditugun Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Beste alde batetik, praktika egoki hori gauzatzen dela egiaztatu izan da ondoren deskribatuta dauden lanbide heziketako ikastetxeetan.

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Miguel Altuna GLHBI 1928ko ekainaren 22an jaio zen, Escuela Elemental de Trabajo y Profesional Textil de Bergara -Bergarako Oinarrizko Lanbide eta Ehungintza Eskola-izenarekin.

Gaur egun, ikastetxearen heziketa-eskaintzak erantzuna ematen dio Bergara eskualdeko industria-sareari. Eskaintzaren baitan daude Hasierako Prestakuntza, Erdi eta Goi Mailako Graduoko zikloak, Zikloetarako Sarbide Proba prestatzea, Graduondokoa eta baita Eskaintza Partziala modalitatearen bitartez titulua eskuratzeko modu berritzailea ere, Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitate Elektronikoa, Instalazioa eta Mantentzea eta Administrazioa familietan. Horrez gain, lanean ari diren langile nahiz langabeentzat Lanbiderako Prestakuntza ikastaroak eskaintzen ditu.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Usurbilgo Lanbide Eskola Goi Mailako Lanbide Heziketako Berriazko institutua da. Bertan eskaintzen dira hasierako lanbide heziketa (erdi eta goi mailako heziketa zikloak), etengabekoa (langileentzako ikastaroak) eta lanerako heziketa (langabeentzako ikastaroak). Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz irakasten dira 5 lanbide-familiako heziketa zikloak: Administrazioa, Elektrizitatea-Elektronika, Energia eta Ura, Fabrikazio mekanikoa eta Mantentzea, eta Ekoizpenerako zerbitzuak.

ARMERIA ESKOLA

Armeria Eskola Eibarko udalaren ekimenez sortu zen 1912an, Eibar eta inguruko eskualdearen garapen industrialari laguntzeko. Hasieran, garai hartako arma-industriari estu lotutako hezkuntza eskaintzen zuen, eta gerora doikuntzako mekanika, elektrizitate-elektronika, diseinua eta kalitatearen kudeaketako arloetan espezializatu zen.

Gaur egun, titulartasun publikoko Lanbide Heziketako Berriazko Goi Mailako institutua da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren menekoa. Hasierako erdi eta goi mailako lanbide heziketa eta lanerako heziketa eskaintzen dira bertan.

IEFPS EASO POLITEKNIKOA GLHBI

125 urteko historiarekin, EASO politeknikoa lanbide heziketako ikastetxe integratua da.

1880an sortu zen Donostiako Arte eta Lanbide Eskola, herritar ugari behin eta berriz eskatu ostean, eta Nicolas Bustindui jaunak proposamen zehatza eginik, hiriko Udaletxearen ekimenez.

Egoitzaz zenbait aldiz aldatu eta gero, gaur egun ikastetxea Amaran kokatuta dago, eta bertan eskaintzen da hasierako lanbide heziketa (erdi eta goi mailako heziketa zikloak), etengabeko prestakuntza (langile eta langabeentzako ikastaroak), lanerako prestakuntza eta zikloetara sartzeko ikastaroak. Institutuan erdi eta goi mailako 10 lanbide-familiako heziketa zikloak irakasten dira A eta D ereduetan. Hona hemen aipatutako familiak: zura eta altzariak, elektrizitatea-elektronika, fabrikazio mekanikoa, segurtasuna eta ingurumena, hezkuntza eta herri-lanak, ekoizpenerako zerbitzua eta mantentzea, komunitaterako zerbitzu soziokulturalak, osasuna, kirolerako jarduerak fisikoak eta bitxigintza.

Praktika Onen deskribapena

UPV / EHU-ren 1.go kasuaren
deskribapena: "Gipuzkoako Kanpusa
UPV/EHU.- ENTREPRENARI
Programa"

1. IZENBURUA

Campus de Gipuzkoa UPV/EHU.- Programa ENTREPRENARI

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	X
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	X
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculum kanpoko formazioa	X
Ekintzailetasunean trebakuntza langileentzat	X
Enpresa jendearen parte-hartzea Curriculumaren diseinu eta inpartizioan	X
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	X
Ekintzailetzarako dirua /baliabideak	X
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATE/UNIBERTSITATEA

Gipuzkoako kanpusa UPV/EHU

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: Laura Espín

Lanpostua/kargua: Entreprenari Programa Arduraduna

e-posta: laura.espin@bicberrilan.com; entreprenari@bicberrilan.com

Helbide postala:

EntreprenariGunea - Aula BIC; Centro Jose Mari Korta;

Avd. Tolosa 72, planta 0; 20018 DONOSTIA

Telefono zenbakia: Tel. 943-015 473/ 943-000 999

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	X
Hedapena	X
Ikerketa	
Erremintak	X
Beste batzuk, zehaztu: _____	X

6. DATA

Entreprenari Programa 1997an sortu zen eta gaurdaino indarrean jarraitzen du.

7. AURREKARIAK

Bic Gipuzkoa Berrilan, Gipuzkoako Enpresa eta Berrikuntza Guneak, bere misio bezala, profil zientifiko-teknologikoa izango duten enpresa berriztatzaile berriak bultzatzea du. Testuinguru honetan lanean arituz, proiektu mota hauek sortu ohi diren ingurune naturaletako bat, Unibertsitateak direla estimatzen da, eta gure kasu honetan UPV/EHU estrategikoa izanik. 1997an, Ministeritzaren bitartez finantzatu zen Enpresa eta Berrikuntza Sarearen bitartez, Estatu mailan Spintec izeneko proiektu berri bat martxan jarri zen, I+G+b emaitzen ustiaketak dituen aukerak aztertzeko asmoz, Zentro Teknologikoetan dauden Ikerketa Taldeenak alegia. Proiektu honek, 2 urtetako iraupena izan zuen, eta UPV/EHU-ren Gipuzkoako Kanpusean zenbait ikerketa taldeekin lanean hasi zen eta merkatura zuzentzeko lehen proiektu potentzialekin lanean hasi ziren.

Momentu horretatik aurrera, Bic Gipuzkoa Berrilan eta UPV/EHU-ko Gipuzkoako Kanpusak elkarlanean arituz, Programa berri bat sortzea erabakitzen dute, eta Kanpus Ekintzalari baterantz abiatzeko asmoa dute, non Entreprenarik helburu hori lortzeko jarduera planak bideratuko ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du SPRIren bitartez. 2000. Urtetik aurrera, finantziario egonkor bat lortu da Urteroko Kudeaketa Plangintza baten bitartez.

Ondorioz, Entreprenari programak, BIC Gipuzkoa Berrilan eta UPV/EHUren Gipuzkoako Kanpusak, bi erakundeen arteko jarduera ingurua osatzen du, Teknologia eta Ezagutzaren Transferentzia prozesuak errazten ditu, enpresa Berriztatzaileak eta/edo Oinarri Zientifiko-Teknologikoa dutenak, eta baita ezagutza berezi batean intentsiboak diren enpresak ere, modu hauetan:

- Irakaslego, ikertzaile, bekadun eta unibertsitateko ikasleen artean izpiritu ekintzailearen sustapena.
- Proiektuak merkaturatu aurretik heldu arte laguntzea eta ondoren merkatura ateratzen laguntzea ere.

Programa honek ondorengo **jarduera adarrak** ditu:

- Unibertsitatea osatzen duten talde ezberdinen artean Jarduera Ekintzaileak sortzen laguntzea, Sentsibilizazio/Motibazioaren bitartez. Motibatzeke mintegiak eta jardunaldi bereziak antolatzen dira, enpresa berriztatzaile eta/edo Oinarri Zientifiko-Teknologikoa duten enpresen inguruan.
- Ideien sormena bultzatu eta behar berrien bilaketa bultzatu, enpresa berriak sortzen lagunduko dutenak. Zentzu honetan, ondorengo jarduerak egiten dira:
 - Entreprenari Programan interesa adierazten duten pertsonei bisitak egin eta heurekin bilerak egiten dira, eta enpresa sortzeko interes berezia agertzen dutenekin bereziki.
 - Unibertsitatean jatorria duten proiektuen oniritzia duten jarduerak antolatzen dira urtero (**MANUEL LABORDE WERLINDEN Saria / Karrera Amaierako Programei laguntza / Master / Doktore Tesia**).
 - **Enpresa Proiektua Kudeatu eta Garatzea**, garapena bultzatzeko lagunduz.. enpresa-proiektuen.
 - Formazio ikastaroak ere kudeatzen dira, enpresaren kudeaketaren ingurukoak.

Entreprenari programa, ondorengo hauentzat zuzendu da:

- **Unibertsitate arloko ikertzaileengana**, ikertzen ari diren eremuan, euren emaitzak merkaturatu eta ustiari nahi dituztenentzat.
- Unibertsitate eremuko **ekintzaileentzat**, proiektu berriztatzaileak garatzeko.
- **UPV/EHU-rekin elkarkidetzan eginiko ikerketen emaitzak ustiari nahi dituzten enpresentzat**, bai enpresa berri bat sortuz edo dagoenaren dibertsifikazioaren bitartez. Ikerketaren emaitzak, enpresaren, Unibertsitate beraren edo bien ekimenaz sortuak izan daitezke. Unibertsitatea emaitza horien transferentziaz arduratuko da.

8. HELBURUAK

Ekintzalaritzaren inguruko kultura sortu, enpresa berriak sortzeko pertsonak prestatzeko.

- Ideia berriztatzaile berriak sortzea bultzatu eta enpresa ekimen berriak sortzeko behar berriak bilatu.

- Unibertsitate arloan ekintzaile berriak sortzeko jarduerak gauzatu. Sektore estrategiko eta balio erantsia dutenen arlotan enpresa berrien sorrera bultzatu.
- Unibertsitate eta enpresen arteko elkarrekintzarako moduak indartu, I+G+b jarduera eta emaitzen garapena eta aprobetxamendurako aukerak emanez.

Unibertsitatea eta enpresen arteko ezagutzaren transferentziaren eraginkortasuna handitu, pertsona ekintzailearen figuran enfasi berezia eginez.

9. DESKRIBAPENA

- Unibertsitatean lan egiten duten taldeen sentsibilizazio/motibazioa eta formazioan.
- Enpresa arloko ekimen berriak antzeman eta balorea ematea.
- Enpresa proiektuen kudeaketa eta garapena.

1.- Ekintzalaritzan Sentsibilizazio/Motibazio/Formazioa:

- Ikasleentzat zuzendutako ekintzak:
 - Programa ezagutzera eman
 - Think Big saria
 - Fakultate bakoitzarentzat lehiaketak /sariak ad hoc
 - Gailur Programa
 - Enpresa berriztatzaileak sortzeari buruzko mintegiak
- Irakaslego/ikertzaileengana zuzendutako jarduerak:
 - Master eta Doktorego ikastaroetan parte hartzea
 - Jardunaldi eta mintegi espezifikoak

2.- Ideiak antzeman eta balore ematea:

- Diagnosi teknologikoak
- Ikerketa taldeei bisita pertsonalizatuak
- Hedakuntza/Formazio Programa "Ikerketari balore ematea".
- Ekintzaile teknologikotan Formazio/Trebakuntza
- Merkaturatzeko aukera duten Gradu Amaierako Proiektuen edo Masterren lehiaketak
- Enpresa ideia berriztatzaileen MANUEL LABORDE WERLINDEN XIV. Saria.

3.- Enpresa Proiektuen Kudeaketa eta Garapena

- Ekintzaile/Txekintek Programa (SPRI/DFG): Ekintzaile/proiektuen finantziaketa
- Adituen aholkularitza
- Azpiegiturak ezartzea: aurre-inkubategi eta inkubategi zerbitzua
- Start Up-erako finantzaketa
- Enpresa bultzatzeko laguntza

10. EMAITZAK

1999. urtetik aurrera, UPV/EHU-n 110 enpresa sortu dira. Urteroko batez bestekoa 7 enpresa/urtekoa da.

Sarri ematen diren jarduerak hauek dira: IKT eta elektronika, ikus-entzunezko ekoizpena, bioingeniaritza, ingeniariak kimikoa, material berriak, gizarte zientziak.

4 urte ondoren, enpresen superbizipen tasa %38koa da. Gaur egun, 39 enpresak diraute, eta 350 lanpostu dituzte guztira, eta 50 M€-tako aktiboak eta 35 M€-tako salmentak orotara.

Gipuzkoako kanpus mailan, Entreprenari Programaren bitartez 47 enpresa berriztatzaile/teknologikoak sortu dira, eta euren superbizipen ratioa %85koa da, inbertsioa 38 M€ ingurukoa eta 259 enplegu dituzte.

11. IKASITAKOAK

Bi erakundearen artean osaturiko programa, bakoitzak bere berezitasunak emanez, honela unibertsitate mailako talde ezberdinen eskaerei erantzun ahal izan du eta lan egiteko moduak aberastu ditu.

Erakunde ezberdinen artean sarean lan egitearen garrantzia, proiektu zientifiko-teknologikoen beharrei erantzun aditua emanez, eta prozesu guztian zehar laguntza ematen du.

Formazioa/Motibazio ezinbestekoak dira aurreiritziak hautsi eta prozesu hauek eragin dezaketen beldurra kentzeko.

Proiektu mota hauen heltze denbora oso luzea da, prozesuak oso ongi egituratzea eta baliabide ekonomikoak modu egokian erabiltzea ere eskatzen dute.

12. IRAUNKORTASUNA

Programa honetan parte hartzen duten erakunde ezberdinen apustua da, bai kudeatzaile edo finantziatzaile moduan.

Jarduera egonkorrak eta denboran zehar trazabilitatea dutenak, motibazio eta formazioan gehienbat.

Ideia/proiektuen bilaketa aktiboa eta kudeaketa espezializatua, eta hauen ondorengo analisi eta bultzadan ere.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Praktika hau, UPV/EHU-ren beste bi kanpusekin batera egiten da, Araba eta Bizkaia, eta CEIA eta BEAZ, Enpresa eta Berrikuntza Zentzuekin, alegia.

UPV / EHU-ren 2. kasuaren
deskribapena "Material Polimerikoen
Unibertsitate Institutua (Polymat)"

1. IZENBURUA

Material Polimerikoen Unibertsitate Institutoa (Polymat)

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	X
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	X
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculum kanpoko formazioa	
Ekintzailetasunean trebakuntza langileentzat	
Enpresa jendearen parte-hartzea Curriculumaren diseinu eta inpartizioan	
Nazioartekotzea	X
Metodologia aktiboak	
Ekintzailetarako dirua/baliabideak	
Beste batzuk: Ikerketa aplikatua eta enprekin lankidetzat. Teknologia eta ezagutzaren transmisioa.	X

3. JATORRIZKO FAKULTATE/UNIBERTSITATEA

Donostiako Kimika Zientzien Fakultatea, UPV/EHU

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: JOSE RAMON LEIZA REKONDO

Lanpostuaren izena: Zuzendari

E.posta: joseramon.leiza@ehu.eus

Posta helbidea: Joxe Mari Korta Eraikina; Avda. Tolosa 72,
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Telefono zenbakia: 943 015329

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	
Hedapena	
Ikerketa	X
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

1999. urtetik gaurdaino.

7. AURREKARIAK

Donostiako Petrokimika Fakultatea 1973. urtean sortu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurralde honetako beste agente batzuk bultzaturiko ekintza estrategiko bezala. Erakunde hauek, 1968an Zuzenbide Fakultatea sortu zuten eta 1971. urtean Informatikako Fakultatea.

Hiru erakunde berri hauek, 1975ean sortu zen trantsizio politikoa zela medio, instituzio hauen interesei erantzuten zien momentu haietan berriztatzaileak ziren unibertsitate mailako ikasketak sortzea eta lan mundura bideratuak, eta jarduera ekonomiko berriak sortu zitzaizketeenak ongi prestatutako profesionalekin.

1981. urtean, Donostiako hiru Fakultate hauek eta aurretik zeuden Unibertsitate Eskolak (Ingeniaritza Tekniko Industrial, Majisteritza, Erizaintza) eta beste Eskola eta Fakultate berriak (Psikologia, Filosofia eta Hezkuntza Zientziak, Arkitektura), sortu berri zen Euskal Herriko Unibertsitatera atxikitu ziren.

1983. urtean, Petrokimikako Fakultateak, Makromolekulen espezialitateaz gain (Petrokimika), Oinarrizko Kimika espezialitatea sortu zuen, eta Donostia – San Sebastiango Zientzia Kimikoen Fakultate izena hartu zuen.

Fakultate honek, bai oinarrizko ikerketan eta ikerketa aplikatuan eta inguruko industriarekin lankidetzan jarduteko joera izan du. Lankidetzan honetan, ikerketa ildoak sortu dira, bai oinarrizko zientzian eta baita polimeroen zientzia aplikatuan ere ondorengo arlo hauetan: Sintesia, Karakterizazioa, polimerizazioaren erreakzio Ingeniaritzan, prozesatua, teknologia eta Reologia. Talde hauetaz gain, Kimika Teorikako Talde garrantzitsu bat ere dago.

Ikerketa aplikatu hau enpresekin elkarlanean, unibertsitate espainiarretan izan ohi zen estilora, Fakultate bakoitzeko sail bakoitzean sortzen ziren ikerketa talde askeen inguruan ematen zen.

1999. urtean, zenbait irakasle irudikorrek, banaka egiten ziren esfortzu horiek arrazionalizatu eta koordinatzea pentsatu zuten, denak elkartuko zituen unibertsitate institutu bat sortuz, eta hau Material Polimerikoen Unibertsitate Institutua izan zen (Polymat).

8. HELBURUAK

POLYMAT, ikerketan lan egiten duen institutu bat da, eta polimeroen arloan diziplina desberdinen artean osaturiko programa baten bitartez sektore industrialari laguntzen dio. Honez gainera, teknologi eta ikerketan duen mailak eta ekipamendu osoa duten laborategiengatik, POLYMAT bazkide egokia izan daiteke berrikuntzarako eta polimeroen inguruan lan egiteko.

POLYMAT batipat ikerketa institutua da (ezagutza sortzen du), eta proiektuak finantziatzia lortzeko deialdi lehiakorretara aurkeztu ditu: nazioarte mailan (Europar Batasuna), Estatu mailan eta herrialde mailan (Eusko Jaurlaritzak). Proiektu proposamen horiek bakarka edo industria sektoreko bazkideekin batera aurkeztuak izan daitezke.

Polymaten emaitza nagusiak, unibertsitate institutu baten ohikoak dira: izen-ona duten argitalpen akademikoetan artikulak, herrialde edo nazioarteko kongresuetan komunikazioak, doktore tesiak, gai berriztatzaileetan ikastaro bereziak.

Polymaten ezaugarri berezia, eta "Praktika On" bezala kontsidera daitezkeenak, teknologia eta ezagutza transferitzeko jarduerak dira. Hauen artean:

- ILP Kontsorzioa: Industrial Liaison Program in "Polymerization in Dispersed Media". 11 enpresa
- Enprekin aldebiko hitzarmenak
- Aholkularitza

Aurrekoaren emaitza gisa, Polymatek bere jabego intelektual nahiz industrialak patenteen bitartez babesten du eta spin-off enpresak sortzen ditu ere.

9. DESKRIBAPENA

Gaur egun, Polymaten Donosti-San Sebastiango Zientzia Kimikoen Fakultatean 20 irakasle baino gehiagok ikerketan aritzen dira, Ikerbasqueko 6 irakasle, 10 post-doktore, doktoregoko hogeita hamar inguru ikasle eta 4 laguntzaile (administrari, laborategiko teknikariak).

Polymaten egoitza, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gipuzkoako kanpusean dagoen Joxe Mari Korta Zentroan ditu bere instalakuntzak.

Teknologiaren transferentzia kudeatzeko, UPV/EHU-ren IETB-rekin (Ikerketaren Emaizten Transferentziarako Bulegoa) elkarlanean aritzen da. Spin-off enpresak sortzeko Bic Berrilaneekin lanean aritzen da.

Polymatek bere bezeroekin estu-estu elkarlanean lan egiten du, eta 100 baino enpresa gehiagori laguntza teknikoa eman die, bai ETEE-ri eta enpresa handiei ere, hauen lehiakortasuna hobetuz eta/edo polimeroen inguruan duten eskarmentua dela eta arazoak konpontzen lagunduz.

Enpresek, aldebiko proiektuak kontratatzeaz gain edo herrialde nahiz nazioarte mailako proiektu lehiakorretan parte hartzeko kontsorzioetan parte hartzeko aukera izateaz gain, polimeroen sintesi eta karakterizazioarekin loturiko zenbait zerbitzu ere eskaintzen ditu:

- Osaketaren azterketa
- Pisu molekularren eta monomero hondarraren banaketaren analisia
- Karakterizazio termala
- Karakterizazioa egiteko entsei mekanikoak
- Eranskailuen testa
- Karakterizazio fisiko-kimikoa
- Karakterizazio reologikoa
- Koloideen karakterizazioa
- Polimerizazioaren errektoreak
- Termoplastikoen prozesamendua
- Bestelakoak

Polymatek garatzen dituen jardueretatik gehien interesatzen zaizkiguna Praktika Onari dagokionean ondorengo hau da:

Consorcio ILP: Industrial Liaison Program in "Polymerization in Dispersed Media "

2000. urtean sortutako kontsorzio bat da. Gaur egun 11 enpresa multinazionalak parte hartzen dute.

- NUPLEX RESINS BV
- BASF SE
- SYNTHOMER DEUTSCHLAND GmbH
- AKZO-NOBEL
- WACKER POLYMER SYSTEMS GMBH & CO KG
- SOLVAY SA
- STAHL International B.V.
- ARKEMA Vlissingen B.V.
- ALLNEX
- VINAMIL
- FORESA

Kontsorzio honen agintaritza batzorde zientifiko baten esku dago, enpresa bakoitzetik ordezkari bana eta Polymateko bi kideez osatua. Kontsorzioak enpresa guztien ekarpen ekonomikoak jasotzen ditu, urteroko kuota bat jasoz. Finantziario honen bidez, batzorde zientifikoak erabakitzen du zein gaien inguruan eta zenbat doktore tesi egin ahalko diren.

Kontsortzioaren bitartez finantzatuak diren doktoregoko ikasleek urtean bi txosten egin beharko dituzte (Polymat-en web orrian jartzen dira, enpresen kontsortzioaren atal pribatuan) eta urtero bilera bat ospatzen da, bertan erakundeak finantzaturiko ikasleek euren tesi doktraleak eginiko aurrerapenen berri ematen dute. Bilerari amaiera emateko, kontsortzio interesgarri uste diren beste zenbait lanen berri ematearekin bukatzen da.

Ikasleek, kontsortzioaren enpresetan hiru hilabeteko iraupena duen egonaldia egiten dute gutxienez. Kontsortzioak finantzaturiko tesi guztiak Europa mailakoak edo Nazioarte mailakoak dira.

Aholkularitzak (2013. Urteko Memoria)

- ERCROS, S.A.
- KOLMER, S.A.

Enpresekiko Aldebiko Proiektuak (2013. Urteko Memoria)

- IPAGSA INDUSTRIAL, S.L.
- SOLVAY, S.A.
- ORIBAY MIRROR BUTTONS, S.L.
- ARAGONESAS INDUSTRIAS Y ENERGIA, S.A.
- SABIC Innovative Plastics US LLC

10. EMAITZAK

Polymat enpresak urtean 1 M€/urteko kudeatzen ditu, eta kopuru honen %65 – 80 inguru erakunde publikoetako agentzi ezberdinen deialdi lehiakorretatik lortzen da, eta %20 – 35 ingurukoa industrietatik lortutako finantziazio zuzena da.

Gaur egun 10 patente baino gehiago erregistratuak ditu, eta hauetatik asko ILP Kontsortzioaren jabegoko enpresak dira.

Polymat-en formakuntza jaso zuten ikertzaileek spin-off enpresa bat sortu zuten, Ikerlat Polymers SL, egoitza Lasarten jarri zuen, eta industria farmazeutikoarentzat dispartio polimeriko funtzionalizatuak egiten ditu. Enpresa honetan, Polymat-en laborategietan formakuntza jaso duten lau doktorek lan egiten dute.

Honez gainera, Polymat-en urtero hamar Doktore Tesi baino gehiago defendatzen dira, hauetako asko nazioartekoak eta hauetako asko enpresek finantzatuak dira.

11. IKASITAKOAK

Polymat-en misioa, ezagutza sortu eta industriara transferitzea da, eta horregatik garrantzitsua da honekin harremana izatea. Beraz, industri honentzat erakargarri diren artikulak eta hedapen zabala duten argitalpenak egitean oinarritzen da. Industrietatik parte

hartzen duen hitzaldi eta bestelako gertakizunetan ere. Eta orokorrean, industria honekin harremanak lortzea eta laguntza ere harremana indartzeko.

Aurrekoa lortu ahal izateko, erabateko garrantzia izan zuten Polymat eratu zuten pertsona irudikorak, izan ere ideia horretan sinetsi zuten eta berau gauzatzeko denbora eta esfortzu handiak egin zituzten.

Unibertsitateko tituludunen erantzuna zuzena bada, industria gerturatu eta harremana mantendu nahian dago.

12. IRAUNKORTASUNA

Polymat-ek polimeroen inguruan puntan-puntako eta lehiakorra den ikerketa egiten duen bitartean eta industriara transferitzen den heinean, kontsorzioaren etorkizuna ziurtaturik egongo da.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Industriak interesa adierazten duen arlo batean ezagutza sortu, beste kontsorzio berezi bat sortzeko.

UPV / EHUko 3. kasuaren
deskribapena:
"Zuzendaritza taldeak ekintzailletza
babestea"

14. LAN ARDATZA

Zuzendaritza taldeak ekintzailatza babestea

15. LEHENTASUN ARLOA

Misioa & Estrategia	X
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailatasunean	X
Curriculum kanpoko formazioa	
Ekintzailatasunean trebakuntza langileentzat	
Curriculum garatu eta irakasten enpresako langileak txertatzea	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	X
Ekintzailatzarako dirua/baliabideak	
Beste batzuk: Ikerketa aplikatua enprekin lankidetzan. Teknologia eta ezagutzaren transmisioa.	

16. JATORRIZKO FAKULTATEA/ UNIBERTSITATEA

Ingeniaritza Eskola Txandakatua / MEI-IMH

17. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: ROBERTO ALTZERREKA ETXEBERRIA

Kargua: Ekintzailatza-arduraduna

E-maila: roberto@imh.eus

Posta helbidea: Azkue Auzoa, 1 20870 Elgoibar

Telefono zk.: 943744132 / 609160323

18. EKINTZA MOTA

Formakuntza
Hedapena
Ikerketa
Erremintak
Bestelakoak, zehaztu: Estrategia

19. DATA

MEIk ekintzailletza-ildoak biltzen du bere estrategian; hainbat ekimenetan gauzatzen da hori. Bi azpimarratuko ditugu hemen:

- Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza Graduaren diseinuan eta derrigorrezko ikasgaietan ekintzailletza txertatzea.
- Enpresa ideien lehiaketa

20. AURREKARIAK

MEIk ekintzailletza ekosistemari egindako ekarpen-estrategia ekintzailletza industrialean gauzatzen da. Ezaugarri "industrial" hori da izateko arrazoia ematen dion bereizgarria.

Ekintzailletza oro har, eta, horrenbestean, industrialak ere bai, lau zutabe nagusiren gainean eraikitzen da:

- 1.- Ekintzaileak
- 2.- Enpresa-ideiak
- 3.- Baliabideak
- 4.- Sarea

Aldeko faktoreak

- Enpresa-ideiak: Industria sektorean egiten dugu lan. Gure jarduera sektorean aztertzeke premiak hautemateko gai izan beharko genuke, eta premia horien arabera enpresa-idea zerrenda bat finkatzeko ere bai.
- Ekintzaileak: Ezaugarri desberdinak dituzten ikasleengana iristeko lehentasunezko sarbidea ere badaukagu, etapa guztietan ideia eta proiektuetan lan egin ahal izateko.
- Baliabideak: Gure instalazioak eta egiteko jakintza gogoan izan behar dira.
- Sarea: Gure ibilbidean lankide izan gara enpresa, eskola, administrazio eta era guztietako erakundeekin.

Zer eskain dezakegu?

- Ekintzaileak: Ekintzailetzaren aldeko kultura sortzen laguntzea, gure lan-ildotik hurbileko esperientzia errealak zabalduz.
- Enpresa-ideiak: Enpresa-ideiak biltzeko gaitasuna.
- Baliabideak: Ausartzen denari laguntza eta baliabideak. "Alfonbra gorria" enpresa-ideia industrialak garatzeko.
- Sarea: Administrazioan solaskidetzak. Laguntza zabalkundean. Harremanak.

Ekintzailetza industrialak, beste sektore batzuetako ekintzailetzarekin alderatuta, hainbat zailtasun ditu; hori dela eta, proiektu kopuru txikiagoa du. Alde batetik, azpiegitura garestiak eskatzen ditu (makinak gehienbat) jarduera hasten den unetik; finantzazioa da, hortaz, lehenengo oztopoetako bat. Gainera, aukerak lortzea askoz ere zailagoa da, ezin baitira kalean edo gizarte-bizitzan aurkitu, baizik eta enpresa industrialaren jardueratik hurbil sortzen diren hutsuneak izaten dira.

21. HELBURUAK

Gradua

Ondorengo hauek eskatzen dituzten ardurak, besteak beste, betetzeko gai izango diren ingeniariak prestatzea:

- Berritzeko eta sortzeko gaitasuna:

- a. pentsamendu alternatiboa garatzea,
- b. teknologia berriak garatu eta txertatzea,
- c. ekintzailetza,
- d. berrikuntzaren estrategia eta kudeaketa.

Hain zuzen, tituluaren berariazko konpetentzietako bat da honako hau: Garapena berritzeko edo produktuak, prozesuak ala zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitea, jarduerak zuzendu, aplikatu eta ebaluatzea, ingeniarietzako esparru guztietara edo ekintzailetzako ekimenara aplikatutako ezagutza eraginez eta jasoz.

Lehiaketa

Beste alde batetik, eta aurreko atalean deskribatutako testuinguruan, egokitzen joan da gazteentzako enpresa-ideia industrialen lehiaketa bat abian jartzea.

Lehiaketaren helburuak honako hauek dira:

- Gazteen artean izaera industrialeko enpresa-proiektuak garatu daitezkeen bultzatzea.
- Enpresa industrialak sortzeko erraztasunak bideratzea, azpiegitura industrialak uztearen bitartez, erabiltzen dakiten adituekin.

- Egingarritasuna hobetzea eta enpresa-proiektuen arrisku ekonomikoa jaistea, lehiaketan lankide diren erakundeek industria arloan daukaten ezagutza eta esperientziaren bitartez.
- Ideien, ekintzaileen eta enpresen arteko topaketa bideratzea, proiektu industrial berriak sortzeko ingurune emankor bezala.

22. DESKRIBAPENA

Gradua

Tituluan, deskribatutako helburua Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko berariazko moduluaren bitartez garatzen da: derrigorrezkoa da, eta 18 ECTS kreditu ditu.

Modulua osatzen duten ikasgaiak ondorengo hauek dira:

- ✓ Prozesu eta produktuen analisia eta egitura
- ✓ Berrikuntzako proiektuak
- ✓ Berrikuntzaren sistemak, politikak eta ekonomia

Helburuak lortzeko modulua garatzeak badu zentzua oro har, nahiz eta, ekintzailtzari buruz ari garelarik, bere horretan Berrikuntzako proiektuak izeneko ikasgaian irakasten den.

Berariazko modulu horri graduako heziketa modulua bera gehitu behar zaio, zeina txandakakoa edo duala den. Hau da, matrikulatutako ikasleei, euren konpetentziak egoki gara daitezen, eskolan eta enpresan irakasten zaie. Ikasleak asteko hiru egunetan enpresan izaten dira eta bi egunetan unibertsitatean (ordena aldatzen den aste batean izan ezik: bi egunez enpresan eta hiru egunez unibertsitatean). Errealitate horri esker, testuinguru akademiko hutsarekiko desberdina dena eskaintzen zaie ikasleei, ikaskuntzen kontraste erreala egiteko aukera bideratuz.

Lehiaketa

Desberdin eta erakargarri bihurtzen duten alderdiak azpimarratuz, ohartarazi beharrekoak ditugu honako hauek:

- Izaera industrial nabarmeneko proiektuak izan behar dute.
- Edozein jarduera sektoretako ekintzailtza proiektuak bultzatzen dituzten beste ekimen batzuekiko osagarria da.
- Tailer eta laborategiz osatutako azpiegitura teknikoa eskaintzen du, eta hainbat teknologia eta zeharkako ezagutzetan aditua den irakasle talde fidagarria ere bai, ekintzailtza industrial dinamizatu eta gazteen enplegu-ikuspegiak hobetzeko.
- Arlo industrialean espezialista den ingurunearen bihotzetik bultzatzen da: giltzarria da hori hautatutako proiektuak etorkizunean bideragarriak izan daitezen.
- Lehiaketan parte har dezakete ondorengo baldintzak betetzen dituzten proiektu industrial guztiek:

- Izaera industrialeko enpresa-ideia edo -proposamena daukaten ekintzaileak edo ekintzaile-taldeak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar dute egoitza.
- Sustatzaileak 35 urte baino gutxiagoko gazteak izan beharko dute.

Lehiaketan aurkeztutako eskaera bakoitzak memoria teknikoa izan beharko du, honako hauek barne:

- Proiektuaren deskribapena
- Merkatuko aukerak
- Lehiatzaileen identifikazioa
- Proposamenaren berrikuntza
- Azken produktua edo bitartekoa
- Aurreikusitako giza-kapitala eta taldearen deskribapena
- Finantza-proiektzioak eta enplegua sortzeko proiektzioak.

Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke era berean.

Bi sari emango dira:

Lehen saria:

- 2.500 € eskudirutan.
- 40 prestakuntza-ordu, sustatzailearen beharren arabera.
- 100 aholkularitza-ordu enpresa-proiektua garatzeko.
- 300 ordu beharrezko baliabide industrialak eskuragarri izateko (makineria...).

Bigarren saria:

- 2.000 € eskudirutan.
- 40 prestakuntza-ordu, sustatzailearen beharren arabera.
- 50 aholkularitza-ordu enpresa-proiektua garatzeko.
- 100 ordu beharrezko baliabide industrialak eskuragarri izateko (makineria...).

Proposamenak baloratzeko irizpideak

- Egingarritasuna (25 puntu): Baloratzen dena proposatutako enpresa-ideia abian jarri ahal izateko gaitasuna da, beharrezko giza-baliabide, baliabide material eta finantzarien kopurua eta kalitatearen arabera.
- Merkatu potentziala eta lehiakideak (20 puntu): Merkatu objektiboko merkatu-hobia edo hobiak identifikatzea baloratzen da, ezagutza-maila, enpresa-ideiak bere baitan duen kokatzeko estrategia eta aurkeztutako proposamenarekiko dagoeneko dauden alternatiba nagusiak analizatzea.
- Berrikuntza (20 puntu): Enpresa-ideiak dakarren berrikuntza-gradua baloratzen da, merkatuan dagoeneko dagoenaren edo bere ekintza teknologikoko arloan dagoenaren aurrean.
- Azken produktua edo bitartekoa (10 puntu): Eraitza bezala azken produktu bat duten enpresa-ideiek dute lehentasuna, sortzen den enpresak etorkizunean izango duen lehiakortasun-maila igotzen duelako.
- Epe motzean enplegua sortzea (25 puntu): Egindako aurreikuspenen arabera, hurrengo hiru urteetan sortzekoak diren lanpostuen kopurua baloratzen da.

23. EMAITZAK

Gradua

Ezin da eragina neurtu, izan ere, eskolak 20 urte badauzka ere, gradu berriko graduatuen lehenengo taldea 15/16 ikastaroan irtengo baita.

Eraginari dagokionez, graduan matrikulatutako ikasle guztiei eragiten die (50 plaza urtean).

Lehiaketa

Ekimenak bi urte dituela kontuan hartuta, hauek dira kopuruak:

Proiektu-kopuruari dagokionez:

- 8 enpresa-idea
- 2 proiektu garapen fasean
- Oraindik ez da denborarik izan finkatutako enpresa bat izateko

Enpresek eta beste era bateko erakundeek parte hartzearen ikuspuntutik:

- 6 enpresa parte hartzaile
- Finantza erakunde bat
- Udaletxea, garapen+ egitarauko Eskualdeko agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
- Beste prestakuntzako erakunde nahiz berrikuntza eta ekintzailetzako foro batzuk

24. IKASITAKOAK

Gradua

Deskribatutako modulua 3. eta 4. ikasturteetan zehar garatzen denez, oraindik ikasitako ikasgai gutxi daude. Hirugarren ikasturtea oraintxe amaitu da, eta 4. ikasturteko lehenengo taldea 2015eko irailean hasiko da.

Lehiaketa

Bi edizio abian jartzeari esker (gaur egun abian da bigarrena), ondorio edo ikasitako ikasgai batzuk eskuratu ahal izan ditugu dagoeneko.

Horietako nagusia, aurreikusi zitekeen moduan, ekintzailetza industrialeko ekimenak biltzeko zailtasun handia da. Erantzuna asko hobetu daiteke, batik bat kopuruari dagokionean, baina baita jasotako proposamenen kalitateari dagokionean ere. Beharrezkoa da proposamenak eman ditzaketen dinamikak eragitea.

Enpresen ikuspegitik. Euren jardueraren analisi zehatza egiteak, eta, zuzenago, erosten dituzten produktu eta zerbitzuenak, asebate gabeko aukera edo eskaeren inguruko argibideak eskain ditzake.

Ekintzaileen ikuspuntutik, hedatzen ari diren sektoreei buruzko gaikako tailerrak antolatzea ere enpresa-ideien iturri interesgarria bihur daiteke.

Prototipoak osatzeko faseari begira, aurreikusi baino konplexuagoa gertatzen ari da ideia irabazlearen prototipoa garapena. Beharrezkoa da arlo horretan profesionaltasuna eta eraginkortasuna handitzea.

Azkenik, sarean hobeto funtzionatzeko beharra aipatu behar da. Proiektuarekin konprometitutako erakunde-sareak bakarrik emango du kalitate nahikoarekin hornitzeko aukera.

25. IRAUNKORTASUNA

Gradua

Baiezta dezakegu iraunkortasuna bermatuta dagoela, ekimena tituluaren diseinu bereko zatia den heinean.

Lehiaketa

Alde batetik, beharrezko baliabideekin hornitu; arduradun bat, aurrekontua, arduraldi denbora, laguntza taldea, zuzendaritzaren mailarik handieneko parte hartzea.

Beste alde batetik, sortutako itzaropenak bete, emaitzak. Baldin eta ideia batek saria irabazten badu, prototipoa sortu behar da, eta enpresa-proiektu bihur dadin lan egin; bestela, sinesgarritasuna galduko du.

Beste behin ere, sarea. Iraunkorra izan dadin, funtsezkoa da diziplina askoko erakundeen parte hartzea.

26. ERREPIKAKORTASUNA

Identifikatzeko zailagoa.

TECNUN-en 1.go kasuaren
deskribapena: "Hezkuntza arautuan,
ekintza ez-kurrikularren
(ekintzaileen kluba) integrazioa"

1. IZENBURUA

Hezkuntza arautuan, ekintza ez-kurrikularren (ekintzaileen kluba) integrazioa

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculum kanpoko formazioa	X
Langileen prestakuntza ekintzailetasunean	
Enpresa jendearen parte-hartzea Curriculumaren diseinu eta inpartizioan	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	X
Ekintzailetzarako dirua /baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATE/UNIBERTSITATEA

Nafarroako unibertsitateko ingeniarien eskola.

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: Mikel Arcelus Alonso

Lanpostua/kargua: Garapen Zuzendaria

e-posta: marcelus@tecnun.es

Helbide postala: P° de Manuel Lardizabal, 13. 20018 Donostia-San Sebastián

Telefono zenbakia: 943 219877 - Ext. 2415

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen Praktika Onak Ekintzailetasunean

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	X
Hedapena	
Ikerketa	
Erremintak	X
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

2009-10 kurtzotik 2014-15 kurtsora

7. AURREKARIAK

Praktika Ona ekintzailetasunaren gaiak erakunde nahiz Tecnuneko ikasleak kezkatzen dituen kontua dela testuinguru bezala hartuta, sortzen da. Gainera, Tecnunen, oinarri teknologikoko enpresa berriak garatzen ari ziren eta ikasle batzuk enpresa-abenturan murgiltzera ekin zioten. Eskolan enpresen sorkuntzari buruzko aukerako gai bat irakasten zen, soilik prestakuntza teorikoa izan arren harrera oso ona eduki zuena.

Inguruan prestakuntza ikastaroak, ekintzaileentzako programak, inkubagailuak, idei txapelketak, etab. zeuden, gehienak negozio ideiak zituzten jendeari begira antolatutak; 90.hamarkadan, ordea, konturatu ginen Tecnunen ekintzailetasunarekiko sentibilizazioa handitzeko beharra zegoela: ekintzailetasunak dakarren guztia ezagutu, ea bakoitzak ekintzaile izateko profil egokia duen ikusi, ideia ea benetan negozio aukera bat den balioztatu eta ekintzaile izatea besteren esanetan lan egitea bezain baliozkoa dela kontuan hartu.

Bibliografian ekintzailetasunari buruzko hainbat dokumentu aurkitu zitezkeen, hala ere, hau ez zen nahikoa.

Horregatik guztiagatik, helburutzat ikasle ekintzaile kopurua handitzea zuen eredu bat sortzea erabaki zen, beren ekintzaile abenturen arrakasta-tasa igoz; aurretik alorraren ikerketa sakon bat eta ekintzailetasunari buruzko doktore-tesi bat egin zelarik. Ikerketan Tecnuneko 100 ikasle ohi elkarriketatu ziren, beren gomendio eta iritziekin ereduaren helburua ateratzeko eta eraikitzen joateko asmoz.

Beste alde batetik doktore-tesi bat burutu zen, zentro teknologiko batetik zenbat spin off sortzen ziren jakinarazten zituzten aldagaiak ezagutzeko helburuarekin. Emaiztekin ereduak aberastu zuten.

8. HELBURUAK

Ereduaren helburuak ekintzailetasunarekiko sentsibilizazioa handitzea, ekintzailetasunak dakarren guztia ezagutzea, ea bakoitzak ekintzaile izateko profil egokia duen ikustea, ideia ea benetan negozio aukera bat den balioztatzea eta ekintzaile izatea besteren esanetan lan egitea bezain baliozkoa dela kontuan hartzea dira; honekin batera, eskolan jaiotako enpresa gehiago sortuz.

Helburua ekintzailetasunari buruz ahalik eta gaitasun gehien lortzea da; honela, ekintzaile izateko motibazio badute, negozio aukera bat izan daitekeen ideia bat hautematen badute eta ideia horri jarraipen egokia emateko gaitasuna badute, enpresa berri bat sortuko litzateke.

Helburua prestakuntza teorikoa nahiz praktikoa jasotzea da.

9. DESKRIBAPENA

Praktika honako ideiak kontuan hartzen dituen ereduan oinarritzen da.

- Sentsibilizazioa:
 - Ekintzaile diren teknuneko ikasle ohi eta kanpokoen hitzaldiak
 - Ekintzaile diren ikasle ohien datu-baseen eguneratzea, ekintzaile ezberdinekin elkarriketak, alorrari buruzko ikerketak
 - Ekintzaileen presentzia ekitaldi akademikoetan, hala nola, promozioaren egunean eta ekuadorraren pasatzean
 - Web orrian ekintzaile diren ikasle ohien sariak eta lorpenak jakitera eman
 - Ikasle ohien abenturetan oinarritutako ekintzailetasunari buruzko kasuen ikerketa
 - Ekintzaile bat gonbidatu edozein alorretan, bio, teleko...
 - Inbertitzaile foroetan parte hartu
- Prestakuntza:
 - Prestakuntza arautua, enpresen administrazioa, operazioak, finantzak, kosteak eta giza baliabideak ikasle gehienentzako
 - Kurtsoan zeharreko prestakuntza:
 - Finantzak, enpresa berriak, forma juridikoak, finantziario iturria, eta abar, bezalako gaiei buruzko 60 minutuko seminarioen bidezko prestakuntza

- Udako kurtsoaren prestakuntza:
 - Finantza eta marketin kasuei buruzko lana
 - Negozio eredua eta negozio plana
- IESE prestakuntza: ekintzailetasunari buruzko 40 orduko kurtso intentsiboa, tailerra barne
- Aholkularitza:
 - Ekintzaileentzako laguntza bulegoa, edozein kezka bic berrilanera, sustapenera, eta abar bideratuz
- Dokumentazioa:
 - Ekintzaile diren ikasle ohien zerrenda
 - Ikasle ohien testigantza
 - Liburu espezializatuak liburutegian
- Praktikan jarri:
 - Gradu amaierako lana: gradu amaierako proiektu bezala negozio ideia bat garatu, departamendu, irakasle, ikasle ohi edo ikasle propioei begira
 - Gradu amaierako lanaren eranskina: lana negozio plan bati buruz ez izan arren, ekintzaile diploma nahi duten ikasleei, lanak zein balio-ekarpen dituen atertzea eta garatzea eskatzen zaie, hala nola, merkatu objektiboaren segmentua
 - Tecnuneko taldeetan parte hartzea: ekintzailearen gaitasunak garatzen laguntzen duten ekintzetan parte hartzea animatzen zaie ikasleei. Tecnuneko talde batzuen zuzendaritza, adibidez, motorsport, tecnun seed, antzerki taldea, ekt, literatura taldea, eta abar, hala nola, Aieteko Ikastetxe Nagusian egindako ekintzetan parte hartzea.
 - Teknologiko ardatza duten ideien garapena: TECNUN-CEITek ikerketa proiektuetatik ateratako hainbat produktu ideiei ditu
 - Negozio erduei buruzko tailerrak, udako kurtso eta IESEko aste intentsiboan
 - Negozio ideia baten presentazioa inbertitzaile talde baten aurrean (tailerra)
 - Tecnuneko marketin taldean parte hartzea
 - Ikasle ohi batek duen negozio ideia garatu
- Pizgarriak:
 - Ekintzaile Klubak antolatutako ekintza multzo batean parte hartzeak (orduak) ekintzaile diploma eskuratzea ahalbidetzen du, ECTS 1 eta IESE aste intentsibora edo udako kurtsoa agertu den diploma.

Antolakuntza:

Ekintzen antolakuntza ekintzaile klubaren esku dago, ekintzailetasuneko irakaslearen koordinazioarekin. Urtero kurtsoan zehar egingo diren ekintzak adosten dira.

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

Erakunde kolaboratzaileak:

Sustapena Donostiako Udala, Bic Berrilan, Crecer+, IESE, Alumni Tecnun, IK4.

Komunikazioa:

Ekintzen, berrien eta gertaeren komunikazio eta hedapena oinarritzkoa da, barne marketina, honela, ikasle gehiago parte hartzeko, lehenagotik ere, 1.mailatik. Ekintzaren komunikazio arduradun bat egon behar du.

10. EMAITZA

Helburu nagusiak era errez batean zenbatu daitezke:

- Ekintzailetasunean interesa duten ikasleen kopurua %235-ean handitu da.
- Eskolako 10 graduetakoko ikasleak ekintzailetasunarekin erlazionatutako ekintzetan parte hartzea.
- 95 ikasleko batez bestekoa, guztien %10-a klub-aren ekintzetan eta %32-a ekintza extra akademikoetan parte hartuz.
- Ekintzailetasunaren diploma lortu duten 25 ikasleko batez bestekoa.
- IESEk antolatutako ekintzailetasunari buruzko astera joateko itxaropen zerrenda, plazak:60
- Negozio garapenaren proiektuarekin dauden ikasle eta ikasle ohien kopuruaren igoera (2015, 10 negozio-plan garatzen)

11. IKASITAKOAK

Ikasitako garrantzitsuenak gazteen sentsibilizazio beharra da. Ekintzailetasuna egingarri eta lortu daitekeen zerbait bezala ikustea, gaitasun zehatz batzuk behar dituela eta esperientzia duen norbait beharrezkoa dela ikustea lortu behar da. Sentsibilizazioan dago gakoa, eta horretarako, ikasleek astero bizi behar dituzte ekintzailetasunarekin erlazionatutako esperientziak, berri, ekintza eta bilera ezberdinekin.

Ekintzaile batek bizitzen duen egoera berdinean egotea lortu behar da, hau da, ideia bat garatu eta aurrera eraman behar da, lehenengo fase honetan dauden zailtasunak gaindituz.

Azkenik, zati zailena, ekintzailetasuna esperimentatu, ereduak falta den gaia da honako hau; ekintzailetasuna bizi eta errealitatean nola jokatzen duen.

Azken finean, sentsibilizazio- prestakuntza- simulazioa- ekintzailetasuna bizi.

12. IRAUNKORTASUNA

Oso garrantzitsua da kurtso edo urtean zehar sentsibilizazio prozesuaren intentsitatea ez galtzea, ikasleei balioak eskaintzen dizkien ekintzak antolatuz eta gonbidatuak ondo hautatuz.

Beste alde batetik, Tecnunen sortutako ekintzaile ekimen guztiak zabaltzea beharrezkoa da, hala nola, proiektua bereganatzea.

Azkenik, eredu guztia mantendu, inongo adarrik huts egin gabe.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Eredua ihardetsi ahal izateko, antolakuntza finko bat eraiki behar da, langile finkoekin: gaia ezagutzen duen irakasle bat edo irakasle multzo bat, klubean kolaboratzaile bezala aritzen diren ikasle ohiak eta ikasleek osatutako antolaketa aldakor bat. Protagonismo berezi bat eman behar zaie ikasleei, beraiek eraman behar dituzte ekintzak aurrera, beti ere, ikasleen kontrolpean.

Ekintzen, berrien eta gertaeren komunikazio eta hedapena oinarritzkoa da, barne marketina, honela, ikasle gehiago parte hartzeko, lehenagotik ere, 1.mailatik. Ekintzaren komunikazio arduradun bat egon behar du.

GEP-MU ren 1.go kasuaren
deskribapena: "Elkarlaneko Ikerketa
Eredua Goi Eskola Politeknikoko
Mondragon Unibertsitatean"

1. IZENBURUA

Elkarlaneko Ikerketa Eredua Goi Eskola Politeknikoko Mondragon Unibertsitatean

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	X
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculum kanpoko formazioa	
Ekintzailetasunean trebakuntza langileentzat	
Enpresa jendearen parte-hartzea Curriculumaren diseinu eta inpartizioan	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	
Ekintzailetzarako dirua/baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATE/UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan

4. HARREMANERATARAKO INFORMAZIOA

Izena: Roberto Uribeetxeberria

Kargua: Ikerketako koordinatzailea

E-maila: ruribeetxeberria@mondragon.edu

Posta helbidea: Loramendi 4, 20500 Arrasate-Mondragon

Telefono zk.: 973794700

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen Praktika Onak Ekintzailetasunean

5. EKINTZA MOTA

Formazioa	
Zabalkundea	
Ikerketa	
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu : ANTOLAKUNTZA	X

6. DATA

Praktika on hau GEP-MU jaio eta urteetara sortu zen. Eskola 1956. urtean sortu zuten Mondragon mugimendu kooperatiboaren barneko lehenengo kooperatiba industrialeko (ULGOR S. Coop. eta 2014. urtera arte FAGOR) 5 ingeniari teknikok. 1968. urtean GEP-MUK Ingeniaritza Teknikoko Eskola izateko aitortza ofiziala jaso zuen eta 1972. urtean nazioartekotzeari emandako bultzadagatik nabarmendu zen; orduan egin ziren atzerriko unibertsitateekin lehenengo trukeak. Halaber, Eskolak 1986tik parte hartzen du nazioarteko formazio eta ikerketa eta garapeneko hainbat proiektutan.

Azkenik, 1997. urtean, beste bi zentro unibertsitarioekin batera ETEO eta HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea osatu zuen. Azken urteetan, GEP-MUK esfortzu handia egin du ikerkuntzaren garapenean, oinarritzko ikerkuntza orientatua, ikerkuntza aplikatua eta enpresa berrikuntza landu ditu. Horretarako, gaur egun garapenean dauden zenbait ikerkuntza zehatzetan elkarlanean dihardu beste zenbait Unibertsitate, Zentro Teknologiko eta enpresetako I+G unitateekin.

7. AURREKARIAK

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, "Jose María Arizmendiarieta" S. Coop., Arrasaten (Gipuzkoa) kokatutako irakaskuntza integratuko izaera duen kooperatiba da, irabazi asmorik gabekoa eta onura publikokoa. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko (hemendik aurrera GEP-MU) titular juridikoa da eta bere aktibitaterik garrantzitsuenak dira formazioa, ikerketa eta enpresa eta beste erakunde publiko eta pribatuentzako Transferentzia Teknologikoa.

GEP-MUren ibilbidean honako puntu hauek nabarmendu behar dira:

- 1966an ALECOP sortu zen, enpresa kooperatiba industrial moduan, ikasleari lana eta ikasketak partekatzeko aukera ematen diona, eta gaur egun 50 bazkide monitore dituen eta ehunka bazkide ikasle.
- 1974an IKERLAN Ikerketa Zentroa sortu zen, gaur egun 200 ikertzaile inguru daude bertan lanean eta Espainiako abangoardiako zentro teknologikoetako bat da.
- 1983an Gizabidea Docente Privada Fundazioa onartu zen, On José M^a Arizmendiarrrietaren hil ondoko lana, zeinaren babesera pasa ziren Eskolako eraikinak.
- 1985ean DIARA sortu zen, Diseinu Industrialean enpresa aitzindaria.
- 1996an CEI-SAIOLAN enpresa martxan hasi zen, sektore aurreratuetako enpresa berrien hazitegi izateko helburuarekin, gainera, aktibitate hau bere fruituak ematen ari zen 1984tik.

Gainera, GEP-MUko (ingeniaritzako fakultateaz hitz egiten ari gara) ikerkuntzako jarduera enpresa mundura orientatzen da, Transferentziarantz, hau da, epe erdira, espainiar ehun industrialari balio bat emango dio. Aspaldi ikusi zen Unibertsitate-Enpresa arteko harremana osagai oso garrantzitsua zela unibertsitate on batek arrakasta izan zezan. Gainera, azken hamarkadetan unibertsitate eta industriaren arteko elkarlanak arreta piztu du, lotura hau onuragarria delako nazioarentzat, enpresentzat eta akademiarentzat.

Ikuspegi hau buruan izanik, GEP-MUko historia/ibilbidea eta MONDRAGON Korporazioko kide izateak, GEP-MUK Elkarlaneko Ikerketa Eredua garatu zuen.

8. HELBURUAK

Elkarlaneko Ikerketa Ereduaren helburu nagusia da GEP-MUko ikerketa hiru agente gakoek elkarlanerako parte hartzearekin lerrotzea; GEP-MUK, alde batetik, oinarritzko ikerketa orientatua egiten du eta bestetik, berrikuntzako. Bi ikerketa mota hauek Unibertsitate, Zentro Teknologiko eta enpresetako I+G unitateekin lerrotatu nahi ditu. Ildo berdinean lan egiteak ikertzaile masa kritiko bat garatzea dakar, zeina beharrezkoa den bikaintasuneko ikerketa garatzeko. Era berean, unibertsitate eta enpresaren arteko hurbilketaren bidez, berrikuntzarako dinamika bat eta enpresa eta zentro teknologikoetarako etorkizuneko ikertzaileak prestatzen eta gaitzen dira.

9. DESKRIBAPENA

GEP-MU Elkarlanerako Ikerketa Eredu batekin konprometituta dago. Ikerketa eredu horrek ikerketa bikain bat garatzea ahalbidetzen du, zeinaren oinarria den nazioarteko kooperazio sarea eta gure inguruko agente teknologikoen eta enpresen parte hartzea.

Elkarlaneko Ikerketa Ereduaren helburu nagusia da GEP-MUko ikerketa hiru agente gakoek elkarlanerako parte hartzearekin lerrotzea; GEP-MUK, alde batetik, oinarritzko ikerketa orientatua egiten du eta bestetik, berrikuntzako. Bi ikerketa mota hauek Unibertsitate, Zentro Teknologiko eta enpresetako I+G unitateekin lerrotatu nahi ditu. Ildo berdinean lan egiteak

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean


ikertzaile masa kritiko bat garatzea dakar eta hori beharrezkoa da ikerketan bikaintasuna lortzeko. Era berean, beharrezkoa da hezkuntzaren eta enpresaren arteko harremanak estutzea, horiek baitira gakoak berrikuntzarako dinamika baterako, etorkizuneko ikertzaileen formazio eta trebakuntzarako, zentroetako teknologiarako eta unibertsitaterako.

Azpiko irudiak (2. Irudia) GEP-MUK enpresekin duen Elkarlaneko Ikerketa Eredua erakusten du:



2. Irudia Elkarlanerako ikerketarako matrizea

Matrize honetan erakusten den egiteko modua kasu bakoitzean aldatu daiteke, baina gehienetan egiten dena azpiko irudian (3.Irudia) ikus daitekeena da:



3. Irudia Elkarlanerako ikerketarako prozesua

Elkarlanerako Ikerketaren prozesuak baliabide finantzarioak, giza baliabideak eta baliabide materialen apalankatzea hobetzen du; enpresa batek mugitzen duen orduak / pertsonak esfortzua 6 edo 9 aldiz handiagoa da ikuspegi honetatik.

Ikerketa eta Transferentziaren (aurrerantzean I+T) arloan kooperazioa artikulatzeko hainbat premisa eta kudeaketa mekanismo behar dira. Horien bidez, indarrak lerrokatzea eta apalankatzea posible izango da:

Premisa horien artean hauek nabarmendu behar dira:

- Parte hartzaileen arteko konfiantza, elkar onartzea.
- Enpresek I+T eragiketak gehitu nahi izatea, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki, uste dutelako inbertsio hau abantaila estrategiko bat dela.
- Unibertsitateak eta zentro teknologikoek euren I+T eragiketak eta ikerketa lerroak enpresenekin lerrokatzeko erakutsitako nahia eta konpromisoa. Guzti hori negozioaren erronka zientifiko-teknologikoei erantzuteko helburuarekin.
- Agente guztiek parte hartuko duten ikerketako lantalde bat sortzea (unibertsitateak, zentro teknologikoak, I+Gko unitateak). Lantalde horrek erronkak onartuko ditu, helburuak finkatu eta horien arabera jokatu, bezero-hornitzaile eredua alde batera utziz.
- Helburu espezifiko hauek erabakitzea: zaintza, ideiak sortzea, perspektiba, aliantzak, finantziazio iturriak eta garapena.


Gainera, Elkarlanerako Ikerketa Ereduaren oinarrian unibertsitate eta enpresaren arteko konfiantzazko harreman bat dago, hausturarik ez duena. Konfiantzazko harreman honek denbora behar du, errepikatzen diren oinarri arrakastatsuen gainean eraikia, hasieran txikia

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen Praktika Onak Ekintzailetasunean

baina, denbora pasa hala handiagoa egiten dena. Lana amaitu eta gero, bereziki garrantzitsua da koordinazio mekanismoei arreta eskaintzea. Hauek dira puntu kritikoak:

- Zuzendaritzaren konpromisoa parte hartzen duen aktore bakoitzarekiko. Euren ekintza planetan zehazten da erabiliko diren baliabideak jokalariko, baita horri lotutako finantzazio plana.
- Proiektuaren markoa egotea lantaldeak adostu eta onartzen duena. (bide-orriaren teknologia).
- Kooperazioari jarraipena egiteko sistema bat, helburu eta adierazleen lau mailatan oinarritua: korporazioko langile helduak, ikerketa lantaldeak, proiektuak, lantaldea.

Ikerketako lankidetzarako akordio bat elkartze zientifiko-teknologiko baten bidez lortzen da, edo ondorengo irudian (4.Irudia) ikusi daitezkeen alderdiak kontuan hartuz.:



4. Irudia Elkarlanerako ikerketa akordioetan kontuan hartu beharreko alderdiak

10. EMAITZAK

Ondorengo taulan (taula 1) Elkarlanerako Ikerketa Ereduari esker lortutako emaitza garrantzitsuenak jasotzen dira.

Taula 1 GEP-MUko emaitzak

	GEP-MU 2009/2010 [10]
Parke Teknologiko bat egitea	GARAIA Innovation Centre
Sortutako Spin-offs-ak	10
Patente eta Lizentziak	5
Kontratu bidez egindako ikerketa	150
Etengabeko prestakuntzako ikastaroak	40
Aholkularitza	152
Argitaratutako artikuluak	35

11. IKASITAKOAK

Elkarlanerako Ikerketa Eredu bat egoteak industriarekin hartu emanean jarduteko modu asko eskaintzen ditu eta GEP-MUren arrakastarako faktore gakoa da hau. GEP-MUk ekintza asko garatzen ditu enprekin lankidetzan, bai maila operatiboan, bai estrategikoan. Unibertsitatea osatzen dutenek (irakasle, ikertzaile eta ikasleak) ulertzen eta partekatzen dute erakundeak bere eragin esparruan gizartea eraldatzeko duen konpromiso eta ardura.

Gainera, langile gehienek parte hartzen dute erakundearen hiru jardueretan (ikaskuntza, ikerkuntza eta transferentzia, eta industriarako etengabeko prestakuntza) eta honi esker, unibertsitateko kideak enpresarekin harremanetan egotea lortzen da eta honek kontzienteago egiten ditu enpresak dituzten beharrez eta ideiak ematen dizkie lankidetzan garatu ditzaketen ekimenen inguruan.

12. IRAUNKORTASUNA

10. atalean jasotzen diren zenbakiak mantentzeko eta hobetzeko helburuarekin Goi Eskola Politeknikoak – Mondragon Unibertsitatea lanean dihardugu unibertsitate eta enpresen arteko elkarlanean eta ekintzailetasunean. Enprekin harreman berriak landuz eta ikasleak ekintzailetasunerako prestatuz.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Ez dago GEP-MUkoa bezalako beste kasurik, unibertsitate kooperatibo bat da eta MONDRAGON korporazioko kide. Giza bokazio argia eta ingurumen, gizarte eta denborarekiko konpromisoa duena. Abiapuntua hau izanik, GEP-MUk urte asko daramatza elkarlanerako ikerketa eredu hau eraikitzen. Horregatik, lehengo egitekoa da, enprekin harremanak estutzea eta ondoren eredua egituratzea.

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

GEP-MU ren 2. kasuaren
deskribapena: "Enpresa
pertsonalaren barneraketa
curriculum akademikoan"

1. IZENBURUA

Enpresa pertsonalaren barneraketa curriculum akademikoan.

2. LEHENTASUN ARLOA

Misioa & Estrategia	
Antolakuntzaren diseinua	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculumetik kanpoko formazioa	
Langileak ekintzailetasunean trebatzea	
Enpresa jendea Curriculumaren garapen eta ematean sartzeari	X
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak erabiltzea	
Ekintzailetzarako diru baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO KARULTATE/UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa

4. INFORMACIÓN DE CONTACTO

Izena: Fernando Garramiola

Lanpostua/kargua: Energia eta Potentzia Elektronikako Unibertsitate Masterreko koordinatzailea

E-posta: fgarramiola@mondragon.edu

Helbidea: Loramendi 4, 20500 Arrasate-Mondragon

Telefono zenbakia: 943 794700

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

5. EKINTZA MOTA

Formazioa	X
Zabalkuntza	
ikerketa	
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

Praktika on hau masterra sortu zen unean agertu zen, zeina Anecak homologatu zuen 2011ko ekainean.

7. AURREKARIAK

Praktika on hau aurrekari oso zehatz batzuek baldintzatzen dute, zeintzuk hein handi batean praktika ona definitzen duten;

- MGEP MONDRAGON Korporazioaren eta Mondragon Unibertsitatearen barnean integratutako kooperatiba bat da eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren titular juridikoa da.
- Ikerkuntza ulertzeko modua: funtsezko ikerketara bideratutako ekintzak eta ikerketa industrialeko jardueren arteko konbinaketa bidez garatzen ditu.
- Ikerketa lerrokatzea, oinarritzko ikerketa bideratutik berrikuntzaraino, ezagutzaren triangeluaren hiru agente gakoen bidez: unibertsitateak, zentro teknologikoak eta enpresak.
- Enpresa-errealitatearekin harremana, garapen esperimentaleko eta berrikuntzako zereginetan parte hartzen baita zenbait agente teknologiko eta enpresekin kolaboratuz. Gaur egun 400 enpresa bezero baino gehiago ditu.

GEP-MUko Energia Elektrikoko ikerkuntza taldeak (www.mondragon.edu/enele), 20 urte baino gehiago daramatza energia eta elektronika ikerketa eta arlo horretako profesionalak prestatuz, lankidetzak aktiboa du enpresa-agenteeekin.

Fakultatean definitutako ikerketako lankidetzak ereduaren bidez, unibertsitate-enpresa lotura sortzen da. Unibertsitateak enpresako arazo errealekiko duen hurbiltasun eta inplikazioari esker.

Hau kontuan hartuz, masterra definitzerako garaian ezinbesteko garrantzia du agente aktibo hauen parte hartzeak praktiken orientazioan, hauen behar errealei eta sektoreko enplegu ***Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean***

eskaerei erantzunez, honekiko interesa eta masterraren barruan landutako profilaren beharrak bermatuz.

Baina, ez definizio fasean bakarrik, baizik eta masterraren inplementazioan ere, modu honetara ikasleek beraien curriculum akademikoaren garapenean agente kolaboratzaile aktiboen kolaborazioa izango dute.

8. HELBURUAK

Funtsezko helburua bezeroaren ahotsa prozesuaren fase guztietan integratzea da; produktuaren sorreratik hasi eta hau gauzatzera eta azkenean, ikaslea masterraren antolaketan integratuz.

Horrekin lortu nahi dena da merkatuak eskatzen duen profil profesionala duten gazteak prestatzea, hauek enpresek dituzten behar, arazo eta egoerei erantzun ahal izateko.

9. DESKRIBAPENA

Lehen adierazi den moduan, masterra sortu zen momentutik enpresa munduko agenteen egindako ekarpenak erabakigarriak izan ziren.

Zentzu honetan, Energiako Clusterrak tituluaren egokitasunaren analisiaren unean, Prospektiker-en bitartez, eskaintza eta profesionalen eskariaren eta energia sektoreko heziketaren beharren arteko egokitasun mailaren ikerketa bat egin zuen. Bestalde, enpresen beharrak ezagutu ziren Euskal Herriko Teknologia Elektronikoen Industria eta Informazioaren Erakundearen (GAIA) bitartez, gaur egun erakunde honetan elektronika, informatika eta telekomunikazio arloetan produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten 200 enpresa baino gehiago biltzen dira. Azkenik, hainbat enpresetatik etorritako 8 Doktore eta 5 ingeniari laguntzailek masterraren sorrera ahalbidetu zuten.

Behin tituluaren proposamena gauzatu zenean eta honen konpetentziak identifikatu zirenean, masterraren diseinu taldeak lehenengo eskutik jakin nahi izan zuen sektoreko enpresen posizionamendua Masterrari zegokionean. Helburu honekin, 2009. urtearen amaieran eta 2010. urtearen hasieran hainbat inkesta egin zitzaizkien ikasle ohiei eta elkarriketak egin zitzaizkien azken urteetan Unibertsitatearekin elkarlanean, bai arlo akademikoa bai ikerketan, ziharduten enpresei (Ikerlan, Orona, Ingeteam, Ormazabal eta Trainelec).

Tituluaren onarpenaren ondoren eta hau martxan jarri zen bitartean agenteekin izandako etengabeko hartu-emana ezinbestekoa izan dela pentsatzen dugu. Zentzu honetan, urtero profesionalen parte-hartzea planifikatzen da moduluka ematen diren materietan, guztira 3 ECTS.

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

Konkretuki, urtero honako hauek parte hartzen dute:

- Francisco Javier Benito (Ormazabal-Velatia): 4 ordu Ikasgaia Energia elektrikoaren sorkuntza, garraioa eta banaketa.
- Ritxar Aizpuru / Inge Isasa (Orona): 4 ordu Enpresara bisita eta hitzaldia garraioa bertikalari buruz. Ikasgaia Garraio bertikala.
- Jon Bikandi (Control Techniques): 2 ordu " Garraio bertikaletan Control Techniques bihurgailuen aplikazioa ". Ikasgaia Garraio bertikala
- Biltegiatzearen inguruko Jardunaldia CicEnergigune-n, zenbait txostengilek parte hartzen dute: 4 ordu Ikasgaia Energiaren metaketa.
- Santiago Galbete (Acciona): (2 ordu) %100 berriztagarria den hornikuntza elektrikoaren bideragarritasunari buruzko konferentzia. Ikasgaia Energia elektrikoaren sorkuntza, garraioa eta banaketa.

Bestalde, masterra enpresetako agenteekin elkarlanean definitu izanak, aukera ematen du enpresa horietan ikasleak hasteko, tutoretza akademiko-enpresarialaren ereduaren bitartez kompetentzia teknikoak eta zeharkakoak garatu eta jasotzen ditu ikasleak. Eta horiek dira lan-ikaste partekatze prozesua amaitzen denean ebaluatzen direnak. Gainera, formula honek ikaslearen integrazioa era natural batean egitea ahalbidetzen du, non masterreko bigarren kurtsoko Master Bukaerako lanaren garapena enpresan bertan egitea gerta daitekeen.

10. EMAITZA

Praktika on honen emaitzak bi adierazleren baitan neurtzen dira: ikasleen asebetetasuna planteaturiko enpresa jendearen parte-hartzearen inguruan eta alderantziz, enpresa jendearen asebetetzea masterreko partizipazioari dagokionez.

Ikasleek oso interesgarritzat ematen dute enpresako errealitatera gerturatzeko aukera, sektorean erreferentzia diren enpresak eta hauen teknologia ezagutzeko aukera eta nola ez, beraien etorkizuneko lan-aukera baten sortzaileak izan daitezkeen pertsona horiek ezagutzeko aukera.

Bestetik, enpresa parte-hartzaileek planteamenduaren momentu beretik oso ondo baloratu dute ematen zaien aukera; beraien errealitate eta arazoen berri ematen dieten ikasleei, zeinak epe laburrean merkatuan egongo diren eta beraien enpresetako langile izatera pasa daitezkeen edota beraiei egokitzen zaien merkatuko beste enpresa bateko langile.

11. IKASITAKOAK

Esperientzia honetatik ikasitakoak edo mezu gakoak bi dira:

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

1. Kurrikuluaren garapenean enpresako jendearen parte-hartzeak bereziki aberasten ditu eskoletako edukiak eta ikasleek jasotzen duten balio erantsia.
2. Aurrekoa egia izanik, enpresa jendearen parte-hartzeak neurtua izan behar du; gehiegizko edo gutxiegizko parte-hartze batek sor dezakeen eragina negatiboa izan bait daiteke. Beraz, enpresa jendearen eta irakaslegoaren arteko ordu banaketa kontu haundiz planifikatu beharra dago.

12. IRAUNKORTASUNA

Kasu honetan, unibertsitateak enpresa munduan duen inplikazio eta kolaborazio ibilbideagatik, praktika onaren iraunkortasuna bermatuta dago. Ikaslearen pertzepzioa, irakasleena eta enpresetako profesionalena oso positiboa da. Funtzionamendu mota honek ematen dituen abantailak identifikatu dira, nahiz eta bakoitza optika desberdinetik egiten den:

- Ikasleak lehenengo eskutik enpresa erreala ezagutzeko aukera dauka enpresa batean integratuz, azaro errealekin lan eginez, sektoreko profesionalen eta sektoreko profesionalekin hartu-emanen.
- Enpresek etorkizuneko profesionalekin, etorkizun hurbil batean beraien erakundeetan integratu direnekin, elkarbanatzeko eta eraikitzekeko gune bat izaten dute.
- Masterra, eta ondorioz, fakultateak produktu bat eskaintzeko aukera dauka, masterra kasu honetan, enpresa munduaren beharrekin lerrokatuta dagoena, zeina enpresekin eta enpresentzako sortu den eta honek balio erantsia ematen dio eskaintza akademikoari.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Zalantzarik gabe, hemen adierazitako praktika on hau beste esparru batzuetan erreplikatu daiteke. Hala eta guztiz, hau horrela gerta dadin jarraitu beharreko pausuak ez dira hain errazak. Lehen aipatu den bezala aurrekarien atalean, Goi Eskola Politeknikoko kasu berezia da Mondragon Korporazioaren barnean dagoelako eta bere 40 urte baino gehiago daramatzalako enpresekin elkarlanean, hauekiko duen gertutasun eta erlazio kooperatiboaren ondorioz.

GEP-MU ren 3. kasuaren
deskribapena: "Arazoetan
oinarritutako proiektuetan
oinarritutako ikasketak GEP-MUko
Heziketa Ereduaren ardatz nagusi
gisa"

1. IZENBURUA

Arazoetan oinarritutako proiektuetan oinarritutako ikasketak GEP-MUko Heziketa Ereduaren ardatz nagusi gisa.

2. LEHENTASUN ARLOA

Misioa & Estrategia	
Antolakuntzaren diseinua	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculumetik kanpoko formazioa	
Langileak ekintzailetasunean trebatzea	
Enpresa jendea Curriculumaren diseinuan, garapenean eta irakaskuntzan sartzea	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak erabiltzea	X
Ekintzailetzarako diru baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATE/UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: Nekane Errasti

Lanpostua/kargua: Koordinatzaile akademikoa

E-posta: nerrasti@mondragon.edu

Helbidea: Loramendi 4, 20500 Arrasate-Mondragon

Telefono zenbakia: 943 794700

5. EKINTZA MOTA

Formazioa	X
Zabalkuntza	
Ikerketa	
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

2000. urtetik gaur egunera arte, eta bere filosofia berritzaileari leial, GEP-MUK bere irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren barnean metodologia aktiboak txertatu zituen eta horretarako Mendeberri proiektua garatu zuen. Proiektu honen funtsezko helburua norberak bere formazioa onartzeko pertsonak prestatzea izan da. Ikasleek taldean lan egingo dute, proiektuak gidatuko dituzte, erabakiak hartu, negoziatu eta komunikatuko dute. Proiektu honen oinarritzko elementuetako bat titulazio guztietan POPBL proiektuak (Project Orienting Problem Based Learning) sartzea izan zen.

7. AURREKARIAK

GEP-MUren irakaskuntza jarduera 1968. urtean hasi zuen Ingeniaritza Teknikoko ikasketak eskainiz eta 1997. urtean goi mailako ingeniariitza ikasketak. Urte hauetan 5 titulazio tekniko eta 4 goi ingeniariitza eskaini ditu.

1393/2007 Errege Dekretuaren arauak jarraituz, Espainiako unibertsitateko Goi Heziketako Europako Espazioaren arauari egokitutako ikerketa berrien ezarpena erregulatzen dutena, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa (GEP-MU), Gradu berrietara egokitzeko asmoarekin tituluen birdiseinatze prozesua martxan jarri zuen.

Hau horrela, Europako unibertsitateek bektore nagusi bat jarraitzen dute, konpetentzietan oinarritutako Gradu Tituluen definizioa, bai espezifikoa –titulu bakoitzekoak– baita generikoa edota zeharkakoak eta gaur egungo lan-munduan garrantzia eta balorazio ona dute.

Birdiseinatze prozesuan garatutako lehenengo jardueretako bat testuinguruaren eta tituludunen ingurune profesionalaren hartzailea aztertzea izan da, etorkizuneko egresatuen beharrak eta funtzio profesionalak zehazteko helburuarekin. Informazio hau oso garrantzitsua da titulu berrien diseinu prozesuan, informazio gakoa baita.

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

GEP-MUK prozesuaren birdiseinatzea 2007an hasi zuen modu honetara 2008. urtetik aurrera martxan jarri ahal izan zituen. Hasiera batean gauza orokor bat egin zen, profil profesionalari dagokionez, ondoren gauza zehatzago batetara iritsiz, ikaste-emaizetara hain zuzen. Horiek profil profesional bakoitzeko funtzio profesionali erantzuteko behar diren konpetentziak ebaluatzeko balio dute.

Profil profesionala behin zehaztuta eta honi dagozkion konpetentziak eta materialak eta ikaste emaitzak, heziketa eredu berriaren beste ardatz nagusi eta elementuen garapenari ekin zitzaion.

8. HELBURUA

GEP-MUKo titulu guztietan POPBLa ezartzearen helburu nagusia da eginez ikastea edo ekintzazko irakaskuntza bat eskaintzea. Gainera, norbera bere formazioa onartzeko prestatzen dira pertsonak, baita taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko.

9. DESKRIBAPENA

2000. urtetik GEP-MUKo titulazio guztietan proiektuetan oinarritutako irakaskuntza metodologia erabiltzen da. Metodologia mota honen aukera maila instituzionalean onartu zen eta horretarako Mendeberri izeneko heziketako berrikuntza proiektua jarri zen martxan.

Urte hauetan hainbat PBL eta POPBL gauzatu dira titulazio bakoitzeko seihileko bakoitzaren bukaeran, zeregin baten (lorpen) edo arazo baten irtenbidea eta garapena lortzeko metodologian ezberdinduz (Zubizarreta & Altuna 2009). Hain zuzen ere, graduak dituen seihileko bakoitzean diziplina arteko gutxienez 6 ECTS-ko proiektu bat garatzen da.

Metodologia hauek titulazio guztietako seihileko guztietan gauzatzen ziren, intentsitate gehiagorekin azken bost seihilekotan, garapen teknologikoarekin zerikusia duten konpetentziak azken urteetan lantzen direlako.

Titulazioetako lehenengo hiru seihilekotan lantzen diren materia eta edukiak lotura handiagoa dutenez oinarritzko ikasgaiekin (fisika, matematika, adierazpen grafikoa, oinarritzko informatika), zailtasun gehiago genituen proiektua definitzeko. Titulazio hauetan ezagutza guzti hauek teknologiak erabili eta garatzeko eduki instrumentalak dira.

POPBLen irakaskuntza metodologian eta hauen diseinuan zenbait faktorek eragiten dute, ikaste emaitzek, edukiek, ikasle taldeak, irakasle taldeak eta haien arteko koordinazioko emaitzek eta baliabide fisiko, denborazko eta material libreek. Faktore guztiak kontuan hartu

behar dira ezagutzak, prozedurak eta jarrerak ikastea bilatzen duten proiektuak diseinatzerako orduan, horiek baitira lan ingurunean funtzio profesionalak garatzea ahalbidetuko diotenak.

Ikasleekiko irakaslearen lanak duen helburu garrantzitsuena materia guztietako edukien bitartez ikaste emaitza bakoitza lortzea da. Momentu honetan, irakaslea da lortu nahi diren emaitzak lortzeko ikaste metodologiarik eraginkorrera aukeratzen duena, POPBLaren metodologiaren erabileraren egokitasuna egiaztatzen duen bitartean.

Behin ikasleak lortutako ikaste emaitzak definitu direnean, lehenengo egin beharreko hausnarketa da ea proposatutako emaitzak POPBL ikaste metodologiaren bitartez lor daitezkeen. Lehen hausnarketa honen erantzuna baiezkoa bada, arazoak proposatzeko fasea hasiko da. Arazo posibleen zerrenda bat lortzeko erabil daitezkeen metodoetako bat irakasleen artean ideia zaparrada bat egitea da, seihileko bakoitzeko ikaste emaitzak konpartitzen dituenak, hau da, seihileko bakoitzean lortu nahi diren kompetentziak identifikatu materia desberdinetan, hori baita ikasleek lortu beharreko diziplina anitzeko muina.

Muin horretatik arazoak zehaztuko dira non ikasleek irtenbide bat eman behar dioten hau definituz eta horretarako proiektu bat inplementatuz. Ikaste emaitzak dira garrantzitsuak kasu honetan. Ikastea da guk lortu nahi duguna. Beraz ikasleen ikaste emaitza bakoitza azaldu beharra daukagu, bide batez adieraziz zer esan nahi duen bakoitzak. Horretarako, irakasle taldeak zehatz-mehatz jakin beharra dauka zein ikaste emaitza lortu diren proiektuarekin eta hauek bete daitezkeela proiektuaren bitartez. Lortu nahi duguna zehazteko eta lortu daitezkeela ebaluatzeko instrumentuak diseinatuz, hau da, froga bat sortuz non bertan egiaztatuko dugun ea ikasleek esperotakoa lortu duten.

10. EMAITZA

Ikuspuntu kualitatibo batetik azpimarratu behar da, bai Gradu baita Masterrean orokorrean lortutako emaitza akademikoak onak direla, baita ikasleen asebetetzea POPBL metodologiarekiko eta proiektuen garapenarekiko. Metodologia aktibo hauek bakarkako zein taldekako prozesuan garatu beharreko kompetentzia profesionalak garatzea ahalbidetzen dute.

Gainera, orain arteko esperientzia modu positiboan baloratu izan da, bai irakasleek baita ikasleek ere, eta arrakastako tasek ere horrela adierazten dute, %70-80 bitarteko ikasleek promozionatzen baitute kurtsoa.

Zehazki, kurtso akademiko bakoitza amaitzean inkesta bat egiten dute ikasleek eta bertan POPBLa baloratzen dute. Inkesta hau honako hamar galderez osatua dago 5 puntuko Likert eskalan:

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

- [Item 1] POPBL metodologia ezagutza teknikoak eskuratzeko eta sortzeko egokia da.
- [Item 2] POPBL metodologiak ikaste prozesuan zehar motibatzen nau, ikasten dudanari zentzua emanez.
- [Item 3] Talde lanean jendearekin komunikatzen (bakarkako lanarekin alderatuz) ikasten da, baita ere besteengatik ikasten, erabakiak denon artean hartzean eta ardurak banatzen.
- [Item 4] Lehenengo seihilekoan gauzatutako proiektua interesgarria iruditu zait.
- [Item 5] Bigarrenengo seihilekoan gauzatutako proiektua interesgarria iruditu zait.
- [Item 6] Irakasle-tutoreak proiektua egiten genuen bitartean taldearen gogoeta bultzatuz lagundu digu.
- [Item 7] Irakasle-adituak aurrez planteatutako zalantzak argitu dizkigu.
- [Item 8] POPBLa aurkezteak nire komunikazio trebetasunak hobetzen lagundu dit.
- [Item 9] POPBLari buruzko defentsa egitea taldeko kide guztiak gai batzuen inguruan zenbait gauza ikasteko eta taldeko kide bakoitzaren ezagutza maila ebaluatzeko baliagarria izan da.
- [Item 10] Seihileko POPBLa egiteko zuk eskainitako eskolaz kanpoko denbora (ordutan) hau izan da:

ITEM	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BATEZ	4,11	3,96	4,06	3,28	3,72	3,42	3,58	3,71	2,89	3,50
BESTEKOA										

Emaitzak analizatuz, laburbildu daiteke ikasleek POPBLa beraien ikaskuntza prozesuan onuragarria ikusten duten metodologia bat dela, zeharkako konpetentziak eskuratzeko balio dutenak, adibidez, ahozko komunikazioa eta talde lana.

11. IKASITAKOAK

POPBLak izaera teknikoko eta zeharkako konpetentziak jaso eta garatzeko mekanismoak ematen dizkie. Izaera teknikoko konpetentziak titulazio bakoitzeko seihileko bakoitzean dauden materieiei dagozkienak dira, eta zeharkakoak talde lana, lidergoa, komunikazioa eta autoikaskuntza dira. Metodologia honek ohiko irakaskuntzarekiko abantaila egoeran uzten ditu ikasleak, askotan agertzen diren egoera ezezagunei aurre egiteko konpetentziak jasotzen dituelako ikasleak. Gainera, proiektuaren garapen prozesuak bi alderdi ditu: i) ikaslearen lanaren emaitza, hau da, produktua eta ii) proiektua garatzerakoan sortu den ikaskuntza.

Azkenik azpimarratu POPBLari esker hurbilketa erreal bat egiten dela praktika profesionalen "objektu" propioetara, ikaskuntza objektuarekin hartu eman zuzen bat dagoela, eta guzti honekin ikasitakoa prozesatu, asimilatu eta ezagutza integratzen da.

12. IRAUNKORTASUNA

10. atalean adierazitako zifrak mantendu eta hobetzeko helburuarekin, Goi Eskola Politeknikoa - Mondragon Unibertsitateak POPBL metodologian ikertzen eta hobetzen jarraitzen dugu, azken urte hauetan arlo honetan asko aurreratzen ari baita. Horregatik, urtero POPBL guztietan hobekuntzak inplementatzen ari dira.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Zalantzarik gabe, hemen adierazitako praktika on hau beste eremu edota unibertsitateetan errepikatu daiteke. Hala ere, hau horrela gerta dadin beharrezko pausuak ez dira hain errazak; komunikazioa, diseinu onerako irakasleen parte hartzea eta malgutasuna ezinbestekoak baitira, baita honen inplementazio, egiteko eta ebaluazioa ere.

Horretarako, honako rol hauek bete behar dira:

- Irakasleak ikaskuntza espazio eta prozesuak definitu eta garatzeko trebetasuna erakutsiko duen rol bat hartuko du. Espazio eta prozesu horiekin ikasleen egitura metakognitiboak moldatuko ditu eta horien bidez ikaskuntza garatuko da.
- Era berean, diziplinako eta ikaskuntzaren erdiguneko ezagutzak eta prozedurak menperatzen dituen aditua izango da. Irakaslearen bi rolak sustatzeko eta garatzeko beharrak, teknika metakognitiboaren azterketan sakontzea ekarri du eta era berean, ikasleekin ikaskuntza estrategia berriak garatu ahal izateko laguntza izatea.

TKnika 1. kasuaren deskribapena:
"Ekintzailletza Lanbide Heziketan
sustatzea: IKASENPRESA eta
URRATSBAT programak"

1. IZENBURUA

Ekintzailletza Lanbide Heziketan sustatzea: IKASENPRESA eta URRATSBAT programak

2. LEHENTASUN ARLOA

Misioa & Estrategia	
Antolakuntzaren diseinua	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculumetik kanpoko formazioa	
Langileak ekintzailetasunean trebatzea	X
Enpresa jendea Curriculumaren diseinuan, garapenean eta irakaskuntzan sartzea	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak erabiltzea	
Ekintzailetzarako dirua /baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATEA/ UNIBERTSITATEA

Tknika, LHrako ikerketa eta berrikuntza aplikaturako zentroa

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

Izena: Samuel Triguero

Kargua: Ekintzailletza eta Aldaketa Kudeatzearen zuzendaria

E-maila: striguero@tnika.eus

Posta helbidea: 20100 Errenteria (Gipuzkoa)

Telefono zk.: 943 08 29 00.

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	X
Hedapena	
Ikerketa	
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

IKASENPRESA: Bi lehenengo hiruhileko akademikoak (irailetik otsailera).

URRATSBAT: Ikasturte akademiko osoan zehar (irailetik ekainera).

7. AURREKARIAK

Berrikuntzak eta ekimen ekintzaileak herrialde batean aberastasuna eta ongizatea sortzeko funtsezko eragile bezala daukaten eginkizun soziala aitortu behar da; ezaugarri erabakigarria da garapen ekonomikoa eta soziala bideratzeko. Garapen hori gauzatzeko, ikuspuntu berritzaileak eta horiek praktikan jartzeko gai diren pertsona ekintzaileak behar dira. Praktikan jartzeko une horretan, hain zuzen, Lanbide Heziketak eginkizun erabakigarria dauka.

Tknikako Ekintzailatza eta Berrikuntzako arloan, aipatutako garapen ekonomiko eta sozialaren alde lan egin nahi da, Lanbide Heziketa Sistemako eragile guztiekin elkarlanean. Helburu bikoitzak gidatzen ditu euren jarduera antolatzen dutenean:

- Ekimenak diseinatu eta garatzea, Lanbide Heziketako Ikastetxeekin orpoz-orpoko lankidetzan, ikastetxeetako ikasle eta irakasleen artean ekintzailatzaren aldeko kultura eta ekimena sendotzera bideratuta.
- Lanbide Heziketako Ikastetxeak eralda daitezen bideratu eta bultzatzea, berrikuntza kudeatzeko ikuspuntu eta ereduak ezartzea bizkortuz; horretarako bitartekoak dira zaintzako jarduerak, sormena, ideiak garatzea, berrikuntzako proiektuak kudeatzea eta horien emaitzak komeni den lekura aldatzea.

Bi helburu horiek bikaintasuna eta dauden baliabideak optimizatzeko premisa aintzat hartuta jorratzen dira, pertsonak kokatuz beti garatzen diren ekimenen erdigunean.

Aipatutako helburuak betetzeko, Ekintzailatza eta Berrikuntza arloan, ekimenak garatzen dira eta zerbitzuak eskaintzen zaizkie LHko ikastetxeei, Sailburuordetzari, eta baita Tknikako gainerako arloei ere. Hain zuzen ere, Tknikak **IKASENPRESA** eta **URRATSBAT** programak eskaintzen ditu.

8. HELBURUAK

Programa horietako bakoitzak berariazko helburu bat dauka:

IKASENPRESA programak ondorengo helburu hauek ditu:

- Ikasleek aitortu, baloratu eta gara ditzatela ekimen ekintzailearekin lotuta gaitasunak, lanpostuetatik eta enpresa-jardueretatik eratorritako eskakizunak analizatuz.
- Enpresa txiki bat sortzeko aukera definitu dezala, enpresa-idea hautatuz eta bideragarritasunari lagunduko dion merkatuaren azterketa eginez, jarduera-ingurunearentzako eragina baloratuz eta balore etikoak txertatuz.
- Enpresa-plana lantzeko egin beharrekoak egitea, ondoren abian jarri eta osatzeko, zuzenbide-forma hautatuz eta horrekin lotutako legezko betebeharrak identifikatuz.
- ETE bati dagozkion oinarritzko administrazio eta finantza kudeaketako jarduerak egitea, kontularitza nahiz zerga arloko betebeharrak nagusiak identifikatuz eta dokumentazioa betetz.
- Ikasleek gaitasunak gara ditzatela, hauekin lotuta: norbere autonomia, lidergoa, berrikuntza, enpresa-trebetasunak, eta abar.

URRATSBAT programaren helburua ekimen ekintzailea bultzatzea da, eta baita Lanbide Heziketako ikasleek euren enpresa sor dezaten laguntzea ere.

9. DESKRIBAPENA

IKASENPRESA: "ikasteko ekintzailatza", curriculumaren barruan lantzen den heziketa programa da, batik bat Enpresa eta Ekimen Ekintzailea moduluan, eta gelan enpresa bat sortzeko proiektua erabiltzen du, ikasleek hasieratik haren kudeaketan praktikatu eta ikasteko aukera izan dezaten. Ikasleek ekinez ikasten dutenez, aukera daukate ezagutza tekniko batzuk biltzeko, lan-mundura hurbiltzeko eta zeharkako konpetentziak garatzeko, hala nola, taldeko lana, plangintza, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, ikaskuntza autonomia, eta beste hainbat.

Hartzaileak: Erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako ikasleak

URRATSBAT: Lanbide Heziketako ikasleen ekimen ekintzailea bultzatzen duen programa da, ikastetxeak egiazko enpresa-haztegi bihurtuz. Horretarako, ikastetxeek ekintzaileen esku uzten dute ekintzailearen bulegoa, eta, merkaturatzeko fasean, baita proiektua garatzeko instalazioak ere.

Ikastetxeetako zuzendaritzek erabakitzen dute programan txertatzea, bertan finkatutako helburuak lortzen laguntzeko konpromisoarekin. Horretarako, ikastetxe bakoitzak programa dinamizatzeko arduradun bat dauka ("irakasle-dinamizatzailea"), ekimen ekintzailea sustatzen duten jarduerak planifikatu eta antolatuz. Halaber, "irakasle-dinamizatzailearen" ardura da enpresa-idea batekin aurkezten den ekintzaileari laguntzea.

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailetasunean

Programaren barruan garatzen diren jarduerak honako hauek dira:

- Urratsbat enpresen jarraipena (programa garatzen ari den 10 urte baino gehiagoan zehar sortzen joan diren enpresak erregistratu eta eguneratzea). Urte hauetan zehar 376 enpresa sortu dira, eta horietatik %76 "bizirik" daude oraindik.
- Urratsbat Programaren sentsibilizazioa eta zabalkundea– "Zarata plana"
- Aurre-proiektua duten ikasleentzako prestakuntza.
- Proiektuen tutoretza: jarduera honen baitan sartzen dira Proiektuari harrera egitea, Laguntzea, Garatzen hastea eta Jarraipena.

Hartzaileak: URRATSBATen jomuga dira erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako ikastetxeetako bigarren mailako ikasleak, Ikastetxeko ikasle ohiak, eta ikastetxearekin harremana duen edozein pertsona, Etengabeko prestakuntza eta lanerakoa edo Bertaratu beharrik gabeko prestakuntzako ikastaroen bitartez.

10. EMAITZAK

IKASENPRESA programako emaitzak: 2013/2014 ikasturtean zehar, aurreikusita dago 40 ikastetxek parte hartuko dutela, 1500 ikasle baino gehiagok eta Lanbide Heziketako 74 irakaslek. Gainera, hainbat erakunde eta enpresa ditugu lankide programan garatzen diren jarduera ugarietarako. Aurreikusita dagoenaren arabera, 220 "heziketa-enpresa" sortuko dira.

URRATSBAT programako emaitzak: 2013-2014 ikasturte akademikoan zehar, 45 ikastetxek hartu zuten parte programan. Aurreikusita dago sentsibilizatzeko jardueretan 6.000 ikasle inguruk hartuko dutela parte, 181 enpresa-proiektu landuko direla eta 70 enpresa berri sortuko direla.

11. IKASITAKOAK

Praktika egoki horretan oinarrituz ondorio edo ikasitako moduan azpimarra daiteke LHko ikastetxeek ez dutela baliabide nahikorik alderdi hori sakonago lantzeko, Tknikak ekintzailatza sustatzean emandako laguntza handia izanik ere. Horrez gain, ikastetxeetako irakasleek Tknikaren laguntza izanik, erakunde horretan hartzen dute babes, eta ez dira ekintzailatza gehiago saiatzen. Gai horren ildo beretik, hauteman izan da ikastetxeetako irakasleek ezagutza gabezia dutela ekintzailatzaren aldeko politika orokorren inguruan, eta oinarritzko kontzeptuei buruz (spin-off, hazi-kapitala, etab.).

12. IRAUNKORTASUNA

Programak iraunkorrak dira denboran zehar, Tknika Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa delako; beraz, diru publikoarekin finantzatuta dago.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Tknika Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa izanik, berrikuntza du funtsezko ardatza, eta egunez egun egiten du lan Euskal Herriko Lanbide Heziketa Europako abangoardian kokatzeko helburuarekin.

Sareko lanaren bitartez, eta Lanbide Heziketako irakasleen inplikazioarekin, LHko edozein ikastetxek har dezake parte bi programetan (IKASENPRESA eta URRATSBAT) , eta nork bere ikastetxean hurrenez hurren ekintzaitzaren kultura sustatu.

1. kasuaren deskribapena: IEFPS
Aretxabaleta Lanbide Eskola GLBHI
"Erakundea eta enpresaren arteko
lankidetzarako sareak sortzea"

1. IZENBURUA

Erakundea eta enpresaren arteko lankidetzarako sareak sortzea

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	X
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Formazio arautua ekintzailetasunean	
Curriculum kanpoko formazioa	
Ekintzailetasunean trebakuntza langileentzat	
Enpresa jendea curriculumaren diseinuan, garapenean eta irakaskuntzan sartzea	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	
Ekintzailetzarako dirua /baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATEA/ UNIBERTSITATEA

Aretxabaleta lanbide eskola LHII

4. HARREMANETARAKO

Izena: Rikardo Lamadrid

Kargua: Zuzendaria

E-maila: dire@iaretxabaleta.com

Posta helbidea: Etxebarri auzoa, z/g 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Telefono zk.: 943797900

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	X
Hedapena	X
Ikerketa	X
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

2012tik gaur egunera arte

7. AURREKARIAK

Praktika egoki hau 2012an agertu zen "Errekuntza-motoreak muntatzea eta desmuntatzea" gaiari buruzko ikastaro batean. Mondragon Unibertsitateko titulua eskuratu berri zuten bost ingeniari aurkeztu ziren ikastaro horretan, eta Ingalaterran automobilgintzako proiektu batean parte hartzen ari ziren Lotusekin. Egiaztatu ahal izan zen ikasle horiek prestakuntza akademiko teoriko oso profesionala zutela: motorraren diseinu aparta egin zuten; hala ere, motorra Ingalaterratik hona ekarri zutenean, arazoak izan zituzten muntatzeko, eta ezaugarri batzuk aldatu behar izan zituzten muntatu ahal izateko. Ikastaroko irakaslea zegoen beharraz jabetu zen: ikasleei ikuspuntu praktikoagoa eman behar zitzaien ikasgeletan. Jakin-minak bultzatuta, bisitak egiten hasi zen zenbait enpresatara, ikasleen konpetentzia eta gaitasunen inguruan enpresa-munduak zeuzkan premiak identifikatzeko.

Lehenengo ikastaro horren ondoren, bertaratu zirenen oso balorazio onarekin, Mondragon Automobilgintzak eskatutako beste ikastaro bat egin zen; proiektuan parte hartzen zuten beste ingeniari batzuentzat izan zen, eduki batzuk gehiago eta ordu gehiagorekin.

Azkeneko ikastaro horren ondoren, instalazioak bisitatzeko deia iritsi zen, eta lantzen ari ziren motorraren prototipoa hobetzeko aholkularitza eskaera bat. Lehenengo kontsulta horretan ingeniariak konturatu ziren Unibertsitatea eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetzaren premiaz, eta elkarrekin egiteko lehenengo proiektua jaio zen. 2013-2014 ikasturtean gertatu zen hori. Ordutik aurrera, lankidetzak bizirik dirau, eta gero eta lan gehiago egiten dira elkarrekin. Gaur egun TKGUNE AUTOMOCIÓN proiektuaren bitartez gauzatzen da lankidetzak.

8. HELBURUAK

- Ezagutzaren transferentzia bi noranzkotan (irakasleak-enpresak)
- Lankidetzaren proiektuak
- Ikasleen profilak aberastea bi noranzkotan
- Enpresen premiei erantzutea

9. DESKRIBAPENA

Urtero, arlo honetan interesa duten irakasleak erakundetik irten eta hainbat bisita egiten dituzte enpresetan, bi noranzko dituen ezagutza-transferentzia gauzatu ahal izateko: enpresak bere premiak aurkezten ditu, eta irakasleak izan litezkeen konponbideekin erantzuten du. Prozesu hori gauzatu ahal izateko, hiru pauso jarraitzen dira oro har:

1.-Premiak hautematearekin hasten da. Horretarako, erakundeak baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu dietak eta garraio-gastuak ordaindu ahal izateko. Erakundean txertatzen den irakasle berri bakoitza sentsibilizatzen da premia eta aukera berriak bilatzen bere denboraren zati bat emateak duen garrantziaz.

2.-Gero, hurrengo pausoa enpresei zerbitzua eskaintzea da, nola prestakuntzan, hala aholkularitzan.

3.-Azkeneko pausoa elkarrekin proiektu bat aurkeztea da, "Lanbide heziketako prestakuntza eskaintza ekoizpen sistemaren premietara egokitzea bideratutako proiektuak garatzen dituzten Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren ardurapeko Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxe publikoentzako" deialdiaren arabera.

10. EMAITZAK

- Enpresa eta ikasleekiko erakundearen kokapena hobetu da.
- Erakundeari goranzko sektoreei buruzko ezagutza berritzaileak transmititu zaizkio.
- Ekipamendu berrietarako baliabideak lortu dira -hornitutako aretoak, makinak, eta abar-. Proiektua zenbat eta aurrerago joan, orduan eta hobeto ezagutzen dira etorkizunean egin beharreko inbertsioak nondik nora joango diren erakusten diguten tresneria eta teknologia berriak. Lankidetzaren horren emaitza bezala, baliteke aurten automobilgintzako berariazko gela bat muntatzea; zain gaude.

11. IKASITAKOAK

- Enpresekin harreman ona izatearen garrantzia, harreman indartsu eta osasuntsua
- Erakundetik kanpora irtetearen garrantzia
- Erakundeko langileei "euren kasa egiten utzi".

12. IRAUNKORTASUNA

Zuzendaritza taldearen sentsibilizazioa eta proaktibotasuna. Ikastetxean ekintzailertza-kultura sortu eta mantentzea.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Elementurik garrantzitsuenak erakundearen barruan talentua hautematea da: gure noranzkoan lan egingo duten jakin-minako lagun proaktibo eta "konformagaitzak" aurkitzea. Erakunde publikoa izanik, proiektu horietarako behar diren aparteko orduak ez daude finantzatuta; hori dela eta, pertsonen arduraldia euren jakin-minak bultzatuta iritsiko da.

Kasuaren deskribapena:

"Ideia berrien lehiaketa"

1. IZENBURUA

Ideia berrien lehiaketa

2. LAN ARDATZA

Misioa & Estrategia	
Antolakuntzaren antolaketa (diseinua)	
Zuzendaritza taldearen babesa	
Politikak & legeak	
Araututako heziketa ekintzailertzan	
Curriculum kanpoko formazioa	X
Ekintzailertasunean trebakuntza langileentzat	
Enpresa jendea Curriculumaren diseinuan, garapenean eta irakaskuntzan sartzea	
Nazioartekotzea	
Metodologia aktiboak	
Ekintzailertzarako dirua /baliabideak	
Beste batzuk	

3. JATORRIZKO FAKULTATEA/ UNIBERTSITATEA

LHko ikastetxeak:

- o Miguel Altuna GLHBI
- o Usurbil GLHBI
- o Armeria Eskola
- o EASO politeknikoa GLHBI

Unibertsitate-fakultateak:

- o UPV-EHU (BIC Gipuzkoa)
- o Mondragon Unibertsitatea

4. HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

BIC GIPUZKOA

Izena: Laura Espin

Kargua: Proiektu plana

E-maila: laura@bicgipuzkoa.eus

Posta helbidea: Gipuzkoako parke zientifiko teknologikoa, Mikeletegi pasealekua 83, 20009 Donostia.

MGEP:

Izena: Susana Azpilikueta

Kargua: Komunikazio-arduraduna

E-maila: sazpilikueta@mondragon.edu

Posta helbidea: Loramendi, 4 20500 Arrasate -Mondragon

Telefonoa: 943739709

Miguel Altuna GLHBI

Izena: Iosune Irazabal

Kargua: Zuzendaria

E-maila: iosunei@imaltuna.com.

Posta helbidea: Ibargarai etorbidea, 1, 20570 Bergara, Gipuzkoa

Telefonoa: 943762491

Usurbil GLHBI

Izena: Jon Kortaberria Lasa

Kargua: LPO profesionala

E-maila: irjkortaberria@lhusurbil.eus

Posta helbidea: Zubieta auzoa, 0 z/g, 20170 Zubieta, Gipuzkoa

Telefonoa: 695786761

Armeria Eskola

Izena: Jose Luis Novoa Lage

Kargua: Zuzendaria

Telefonoa: 943203244

Posta helbidea: Isasi Kalea, 36, 20600 Eibar, Gipuzkoa

EASO politeknika GLHBI

Izena: Angel Del Rio

Kargua: Zuzendaria

E-maila: zuzendaria@easo.eus

Posta helbidea: Aitzol Parkea, 2, 20011 Donostia, Gipuzkoa

Telefono zk.: 943 45 54 22.

5. EKINTZA MOTA

Formakuntza	X
Hedapena	X
Ikerketa	
Erremintak	
Beste batzuk, zehaztu: _____	

6. DATA

Oinarrizko lehiaketak urtero errepikatzen dira, eta altzarien lehiaketa bi urtean behin.

7. AURREKARIAK

Orain dela hamar urte baino gehiago hasi ziren enpresa-ideien lehenengo lehiaketak, gazteengan ekintzailatza konpetentzia eta trebetasunak garatzeko beharrean oinarrituta. Helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten ideia berriak identifikatzeko gai izatea zen, eta horren bitartez lurraldearen garapenari laguntzea, aberastuz, eta, aldi berean, enplegua sortuz.

Lehenengo lehiaketen artekoak dira Manuel Laborde sariak, altzarien lehiaketa eta EKITEN barruko enpresa-ideien lehiaketa.

Beste alde batetik, azkeneko bost urteetan zehar instituzio ugari batu dira mugimendu horretara, izan ere, idatzi honetan aipatutako lehiaketa gehienak bost edizio inguru baitituzte.

8. HELBURUAK

- Ikasleen artean ekintzaile espiritua bultzatzea, sormena, ekimenak bilatzea eta norbere enplegua indartuz.
- Produktuak, prozesuak, zerbitzuak edo balio erantsiko negozioak eragingo dituzten ideia berritzaileak sor daitezen bultzatzea
- Diziplina askoko taldeetan lan egitea suspertzea
- Ekimen berriak garatzeari laguntza ematea, baliabide ekonomikoak eta enpresa-sorrera eta -kudeaketako aholkularitzako adituen zerbitzuak jarriz.
- Instituzioaren ahalmen berritzailea bultzatzea, enpresa-ekimen berriak sortu eta garatzearen bitartez.

9. DESKRIBAPENA

Gipuzkoako Goi Mailako Heziketako instituzioek, bateko unibertsitateetako fakultateek, eta besteko lanbide heziketako ikastetxeek, garbi egiten dute apustu ideia berriak sortzeko lehiaketan alde.

Era horretako lehiaketei esker, ekintzaile-kultura irakatsi ahal da ikasgeletan, eta ikastetxeek beraiek enpresa-proiektuak bultzatu ditzakete.

Lanbide Heziketako ikastetxeen baitan, **TKnika**ko **Urratsbat** eta **Ikasenpresa** programetan lehiaketa berariazkoak izateaz gain, honako berariazko lehiaketan proiektu hauek aurki ditzakegu:

- **STARTINNOVA:** aztertutako berariazko ikastetxeetako batzuetan dago, **Miguel Altuna GLHBI** eta **Usurbil GLHBI** zentroetan. Batxilergo eta lanbide heziketako ikasleen artean ekintzailetza sustatzea nahi du, Diario Vascoko lehiaketan parte hartuz. Programa horrek babesle ditu Adeg, Bic Gipuzkoa Berrilan eta Eusko Jaurilaritza; lankide ditu La Caixa Gizarte Ekintza, Tknika, UPV/EHU, Carrefour eta B+I Strategy; eta laguntza ematen diote enpresa zaintzaile hauek: Bellota, EkoRec, Fundiciones Estanda, Michelin fundazioa, Goizper Group, Grupo Wisco, I68, Irizar, KSB Itur Spain, MYL, Sumofic, Unceta eta ULMA. Proiektu horren barruan, hilabete batzuetan zehar euren gizarte- edo enpresa-proiektua garatu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak jaso ondoren, ikasleek beren negozio-eredua asmatzea lortzen dute, Canvas ereduaren oinarrituta. Lantzen diren trebetasunen artean, ekintzaileen trebetasunak nabarmentzen dira (aukerak sumatzeko sena, proaktibotasuna, sinergia-gaitasuna eta motibazioa), negoziatzeko gaitasuna, elkarren onerako harremanak finkatzeko gaitasuna, porrota ikasteko aukera bezala barneratzea, asertibotasuna, aditza aktiboa, eta abar. Hori ikus-entzunezko edukien eta e-learningeko dinamiken bitartez gertatzen da. Behin ideiak aurkeztuta, 10 ideia onenen aurre-hautaketa egiten da; gero horiek ekintzailetzako adituek eta inbertitzaileek osatutako batzorde baten aurrean aurkeztzen dira, hiru onenak saritu egiten dira, eta gerora iraunkor izan daitezen babestu. Ikasleek lauzpabost laguneko taldeetan hartzen dute parte, norbere ikastetxeko irakasle baten tutoretzapean.
- **DONOSTIA HIRIA ALTZARI DISEINU LEHIAKETA: EASO politeknika GLHBI.** Easoko Zura eta Altzarien saileko irakasleek ematen diote zabalkundea ikasleen artean, lehiaketan parte har dezaten. Zabalkunde hori ikastetxean bertan egiten da, baina baita Zura eta Altzarien lanbide familiako LHko ikastetxe guztietan eta Frantziako Akitania eskualdeko ikastetxeetan ere. Edizio bakoitzean 100 lan inguru jasotzen dira, egile bakarrekoak ala gehiagokoak. Ikasturte osoan zehar, proposamenak jasotzeko zabalik dago lehiaketa, eta epea ekainaren 30ean bukatzen da. Gerora, uztailan irakasle, diseinatzaile, enpresari, erakundeetako eta finantzazioan lankide diren enpresetako ordezkariak osatutako epaimahaia elkartzen da. Hiru lehenengo sari eta bi sari berezi izaten dira, ekodiseinuko lana jasotzen duen lanik onenari bat eta lanik landuenari beste bat -bost sari guztira-. Enpresa batzuek sariren bat diruz laguntzen duten arren (Cluster Habc), LHko Sailburuordetza, Kutxa eta Aldundiak hartzen dituzte euren gain kosturik handienak. Lan irabazleak 2000 euroko saria jasotzen du, gama altuko ordenagailu eramangarria eta garaikurra. Eskubideak une oro egilearenak direnez, zaila da zehaztea gero diseinu horiek eredu-pieza baino harago ekoizpen eta merkaturatzeko ibilbiderik egin ote duten. Horri dagokionez berariazko jarraipenik egiten ez

bada ere, irakasleen arteko harremanen bitartez, egiaztatuta dago saridunak berebiziko ikasleak izaten direla; ikasketak bukatutakoan, askok euren tailerra osatzen dute, altzarigintzako elementuak diseinatu eta eraikitzeko, beste batzuk irakasle bihurtzen dira, bestetzuak espezializazio handiko behargin, eta abar. Altzariaren diseinuaz gain, proiektu oso bat aurkezteko eskatzen da -diseinuarekin batera doan memoria-. Proiektua epaimahaiko kideek ebaluatzen dute, alderdi formal hutsez gain, ikus daitezkeen bestelako alderdi estetiko eta funtzionalak ere aztertuz. Bertan, memoria erara, honako atalak zehaztu beharko dira, besteak beste: proiektuaren garapena zer motatako bezeroari bideratuko zaion, sail handietan ekoiztuko al den ala unitate gutxiko multzoan, material eta akaberetan zer aldaketa aurkeztuko dituen, eta abar. Beste alderdi batzuk ere baloratzen dira, hala nola: bideo bitartez egindako aurkezpenak, 3D animazioak, making off-ak, eta beste. Epaimahaiaren erabakiaren ondoren, eta sektoreko aldizkarietan argitaratu ostean, ikasturteko lehenengo hiruhilekoan (iraila/azaroa) sari banaketa egiten da Gipuzkoa plazako Foru Aldundiko aretoan, eta Kutzako jarduera kulturaletako espazioetan erakusketa bat egiten da, bertan edizio bakoitzeko 20 lan onenak aurkeztuta. Lehiaketa prestatzeak ikasleekin diseinua garatzen lana egitea eskatzen duelarik, irakasleentzat proiektu baten jarraipena egitea bezala da. Hau da, aparteko lana da irakasle bakoitzaren ohiko lanetik kanpo, eta, jakina, ez da ordaintzen. Gainera, Easoko Altzarien saileko irakasleek hartzen dute euren gain lanekin ikastetxean erakusketa eta parte hartzaileek aurkeztutako dokumentazioa prestatzeko ardura ere, epaimahaiak eztabaidatu eta erabaki ahal izan dezan. Kutzako guneetara lanak eraman eta muntatzea ere beraiek egiten dute. Orokorrean, ikasleek ikasgaietako lanaz aparte hartzen dute parte horretan; hots, plus bat bilatzen da: lehiaketan parte hartzeko erabaki hutsak esan nahi du ikaslea "ofizialki" eskatzen dena baino harago ekiteko eta lan egiteko prest eta gogoarekin dagoela.

- **SORGUNE JAZ PROIEKTUA:** Eibarko Jaz Zubiaurre enpresak proposatutako ekimena da; eskuila metalikoak egiten espezializatuta, enpresa horrek fabrikatzen dituen produktuetan izan litezkeen aldaketei buruz ideia berritzaileak sortzeko helburua du. Proiektu honetan **Armeria Eskolako** ikasleek hartzen dute parte, eta lehiaketa lehenengo aldiz egin da aurtan.

Unibertsitateetako fakultateei dagokienean, teknologikoak direnak eta teknologikoak ez direnak bilduta, honako hauek identifikatu dira:

- o **EKITEN: Mondragon unibertsitatea.** Bere ikasleen artean enpresa-ekimen berriak sustatzeko eta espiritu ekintzailea bultzatzeko estrategiaren baitan, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK hiru lehiaketa antolatzen ditu ikasturte akademiko bakoitzean:
 - 1. Enpresa ideia berrien lehiaketa: Aurkeztutako ideiak edozein diziplina akademiko eta sektoretan kokatu ahal izango dira, eta ekintzailetzako ekimenak garatu jarduera, produktu, prozesu, zerbitzu edo ildo ala negozio-eredu berrietan.
 - 2. Landa eremua garatzeko ideia eta proiektuen lehiaketa: Lehiaketa honetan Deba Goiena eta Deba Beheko landa eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea bideratzeko ideiak eta ekintzak aurkeztu ahal izango dira, eta baita ingurunea, ekonomia eta gizarte-kulturaren jarraipena bultzatzen dutenak ere.

3. Kimu Berri Lehiaketa. Pertsonen eguneroko bizitza errazteko ideia eta zerbitzu berritzaileak:

Aurkeztutako ideiak edozein diziplina akademiko eta sektoretan kokatu ahal izango dira, eta ekintzailatzeko ekimenak garatu jarduera, produktu, prozesu, zerbitzu edo ildo ala negozio-eredu berrietan.

Lehiaketa honetan MONDRAGON UNIBERTSITATEko edozein titulaziotako unibertsitate gradu eta masterretako ikasleek parte hartu ahal izango dute, euren campusak dauden lekuan daudela ere. Ikasleak banaka edo taldean aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Ikasle batek edo ikasle talde batek ideia bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu ebaluaziorako; hiru ideia gehienez. Hiru sari daude lehiaketa mota bakoitzerako: eskudirutan 1.000€-ko lehenengo saria eta 500€-ko bi sari osagarri talde bakoitzarentzat. Talde ebaluatzaileak erabakiko du lehenengo postuarekin saritutako proiekturen batek nahikoa bideragarritasun ba al duen SAIOLANeko zentroetan garatzeko urtebeteko EKITEN beka bat jaso ahal izateko. Taldeak ez dira proiektua abian jartzera behartuta egongo.

- o **THINK BIG: UPV-EHU, Entreprenari Programa.** Enpresa Ideien "Think Big 2015" lehiaketa sartuta dago Kultura Ekintzailea UPV/EHUko Gipuzkoako campuseko unibertsitarien artean zabaltzeko ekintzen esparruaren baitan. Lehiaketak espiritu ekintzailea sustatu nahi du ikasleak motibatuz beren ezagutzak eta esperientzia profesionalak aplika ditzaten, merkatuan bideragarriak diren zerbitzu eta produktuak garatzeko helburuarekin. Ikasleek banaka edo gehienez lau laguneko taldeetan parte hartu ahal izango dute. Abian den lehiaketaren aurreko ikasturte akademikoan graduatutako ikasleek ere parte har dezakete. Negozio-ideiak ekintzailatza-proiektuak garatzeko ekimenak lantzeko izango dira, Espainiako unibertsitatetako ikasketa-planen baitan jasota dauden ezagutza-adarretako edozeinetan, hala nola: Arteak eta Giza Zientziak, Zientziak, Osasun Zientziak, Gizarte eta Zuzenbide Zientziak nahiz Ingeniaritza eta Arkitektura. Bi irabazle izaten dira; 2.500€-ko lehenengo saria eta 1.500€-ko beste bat.
- o **EKIN UP: UPV-EHU, Entreprenari Programa.** Enpresa Ideien "EKIN-UP" lehiaketa Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako (hemendik aurrera, EIUE) Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (aurrerantzean, EAZ) Graduako ikasleen sormena, berrikuntza eta espiritu ekintzailea garatzeko ekintzen baitan sartuta dago. Lehiaketaren helburua ekintzailatza sustatzea da ikasleak euren ezagutzak, trebetasunak eta esperientzia enpresa-ekimenak eta negozio berriak abian jartzen aplika ditzaten motibatuz. EAZeko ikasleek banaka edo gehienez hiru laguneko taldeetan parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute AEZen matrikulatutako ikasleek eta baita abian den lehiaketaren aurreko ikasturte akademikoan graduatutako ikasleek ere.
- o **MANUEL LABORDE SARIAK: UPV-EHU, Entreprenari Programa.** Sari honekin sustatu eta aitortu nahi diren baloreak honako hauek dira: ekimen ekintzailea eta berrikuntza, bereziki azpimarratuz berrikuntza zientifiko-teknologikoa eta ezagutza. ENTREPRENARI Programaren baitako filosofiari jarraituz, saria eta harekin lotutako erakundeek eutsi egiten diote sortze eta berrikuntza zientifiko-teknologikoko nahiz ezagutzako errealitate guztiak babestu eta bultzatzeko apustuari. Horiek garatuz, Euskal Herriko enpresa-sarean berrikuntza eta modernizatzearen kultura sendotzen dira, unibertsitate-ingurunean oinarrituz enpresa berriak sortzearen bitartez. Berritzaileak jotzen dira oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berriak nahiz goranzko sektoreetara bideratutako enpresak. Lehiaketa ondorengo hauentzako

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundearen Praktika Onak Ekintzailatasunean

da: UPV/EHUko irakasleak, ikerlariak edota lankidetzan aritzen diren ikastetxeak. UPV/EHUko titulu ofizial batean matrikulatuta edo graduatutako pertsonak (Lizentziatura, Diplomatura, Gradua, Ingeniaritza, Arkitektura eta Masterra), UPV/EHUrekin edo ikastetxe lankideekin elkarlanean egindako ikerketa baten ematei etekina ateratzea erabaki duten enpresak. Bi sari ematen dira. Eskudirutan 7.000€-ko lehenengo saria, 60.000€-rainoko diru-kopurua eskuratzeko aukerarekin, BIC GIPUZKOA BERRILANek kudeatutako laguntzen bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka sailak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko SPRIak artikulatuta (TXEKINTEK/ EKINTZAILE eta BARNETEKIN programak) proiektu berritzailetzat edo oinarri zientifiko-teknologikokotzat jota proiektua garatzen eta abian jartzen laguntzeko. Bigarren saria 3.000€-koa da eskudirutan, aurreko kasuan bezala, 60.000€-ra arteko kopurua eskuratzeko aukerarekin.

- o **MERKATARITZAN USTIATZEKO AUKERAK DAUZKATEN GRADU BUKAERA ETA MASTERREKO PROIEKTUAK. UPV/EHU-KO INFORMATIKA ETA KIMIKA FAKULTATEA, ENTREPENARI PROGRAMAREN BARRUAN:** Ekimen ekintzailea eta berrikuntza sustatu eta aitortu nahi da, bereziki azpimarratuz unibertsitate arloan dagoen know-how horretatik abiatuz sor daitekeen berrikuntza teknologikoa eta ezagutza. ENTREPENARI Programaren baitako filosofiari jarraituz, saria eta harekin lotutako erakundeek eutsi egiten diote enpresa-errealitate bihur daitezkeen ekimen berritzaile guztiak babestu eta bultzatzeko apustuari. Horiek garatuz, Euskal Herriko enpresa-sarean berrikuntza eta modernizatzearen kultura sendotzen dira, unibertsitate-ingurunean oinarrituta enpresa berriak sortzearen bitartez. Lehiaketa honetan aurkez daitezke proiektua egiten ari diren azken urteko ikasleak eta doktore-tesia garatzen ari diren doktoreak edo lehiaketan aurkeztutako urte berean zehar tesia aurkeztu dutenak. Kimika Fakultateko Kimika eta Polimeroen Masterrean -Kimika Organikoa- eta Informatika Fakultatean bakoitzean 120 ordu irakasten dituzte gai hauei buruz: negozio-plana, patenteak, plan ekonomiko finantzaria eta negozio-idea bat enpresa-proiektu nola bihurtu. Proiektuak banakakoak ala enpresarekin egindakoak izan daitezke, betiere baldin eta harekin lankidetzarik gauzatu bada. Aukeratutako proiektuek 3.500€-rainoko diru-kopurua jasoko dute, emandako hurrengo sei hilabeteetan zehar aurre-bideragarritasun azterketa egiteko, honako azalpenekin:
 - o Ekimenaren aurre-bideragarritasun analisia eta negozio-ereduaren definizioeko gastuak.
 - o Aholkularitza tekniko-teknologikoa edota prototipoaren gastuak.

Aurre-bideragarritasun azterketa burututa, emaitza egokiak dituzten proiektuek EKINTZAILE/TXEKINTEK programa eskura dezakete (60.000€-raino).

Hau ekintzailetzan sentibilizatzeko jarduera bat da, unibertsitateko irakasleak kontzientziatzera zuzendua, irakasle-ikertzailea jabetu dadin ikerketako edozein proiekturen bideragarritasunaz.

***Entreprenari:** Entreprenari programak BIC GIPUZKOA eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campusaren jarduera-esparrua irudikatzen du: merkatuari Teknologia eta Ezagutzaren Transferentziako prozesuak

Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntza Erakundeen Praktika Onak Ekintzailetasunean

bideratzen/ahalbidetzen dizkio, Enpresa berritzaileak edota Oinarri Zientifiko-Teknologikoa eta berariazko ezagutzako enpresa intentsiboak sortzearen bitartez.

10. EMAITZAK

Eskuratutako emaitzei dagokienez, bi zati bereiz daitezke: emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak.

Kualitatiboei dagokienean, ikusi da horrelako lehiaketek ekintzailetzarekiko interesa bultzatu egin dutela irakasle eta ikasleen artean, eta gainera, urteak aurrera doazen neurrian, gero eta hobe da aurkeztutako negozio-ideien kalitatea.

Beste alde batetik, adierazi dugun moduan, lehiaketa horiekin ekintzaile-kultura sustatu eta enpresa berriak sortzea nahi da; hori dela eta, irabazleak aukeratzeko garaian ideia merkatuan ustatzeko aukerari saria ematen zaio. Jarraian, EKITEN eta MANUEL LABORDE lehiaketetako azken edizioetako irabazleen adibide batzuk daude erakusgai; bi lehiaketa horiek dira helduenetakoak, eta horien eraginez enpresak sortu izan dira.

EKITEN:

- o SKURAMOBILE: Telekomunikazioetako lau ikasleko talde batek 1. saria eskuratu zuen 2011n. Ekintzaile partaideetako bik SkuraMobile sortu zuten geroago: **smartphone eta tabletentzako jatorrizko aplikazioak** garatzen dituzten gazte ekintzaileen enpresa da. Teknologia erabiltzen dute aplikazioentzako neurria egindako konponbideak eskaintzen dituzte, bezero bakoitzaren premiei erantzuten dietenak eta horien zerbitzura jartzen dute euren ezagutza guztia. Gaur egun lau lagunek egiten dute lan bertan. Informazio gehiago nahi izanez gero, orri hau kontsultatu: <http://skuramobile.com/>

MANUEL LABORDE:

- o ELIKASPORT: (2014. urteko 2. saria) **Elikadura, janaria, oinarrizko eta espezializatutako kirol trebakuntza**ren esparruan espezializatutako aholkularitza da. Osasunaren zientziak, kirola eta hezkuntza arloan bereziki kualifikatutako profesional eta ikerlariak osatutako taldea daukate, eta **aholkularitza eta prestakuntza** eskaintzen dute hainbat mailatan. Informazio gehiago nahi izanez gero, orri hau kontsultatu: <http://www.elikaesport.com/>
- o MA+D: (1. saria 2013. urtean) Hondakinak balioztatzeke ingeniarietan aritzen den enpresa. Bere jarduera nagusien artean nabarmentzen dira hondakinen ezaugarritze kimikoa, instalazio-pilotu bat diseinatzea eta industria arloko mailakatzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, orri hau kontsultatu: <http://www.valorizacion.net/>

11. IKASITAKOAK

Ondorio edo ikasitako ikasgai bezala, azpimarragarria da lehiaketa mota horiek gero eta garrantzi handiagoa izatera eraman dituen eboluzio nabarmena. Gazteen artean ekintzailetza-mugimenduak sustatzeko oinarri dira, eta ikusten denez, lehiaketen ondoren proiektuak babesteko diru-laguntzak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta handiagoa dela enpresak sortzean izandako arrakasta kopurua.

Beste alde batetik, nabarmendu da ikasleek gehiago eta hobeto egiten dutela lan baldin eta protagonista sentitzen badira eta garatu behar dutena aukeratzen parte hartzen badute.

12. IRAUNKORTASUNA

Era horretako lehiaketak iraunkor izan daitezen, finantzazioa izatea ezinbesteko baldintza da.

13. ERREPIKAKORTASUNA

Praktika egoki hori errepikagai izan dadin, aintzat hartzeko giltzarria lehiaketak abiatzerako garaian erakunde publiko nahiz enpresa pribatuek emandako laguntza da; izan ere, finantzazioa ziurtatzen den aldi berean, adituen aholkularitza eta euskarria eskain diezaiekete parte hartzaileei. Ekintzailetzan adituak partaide izatea nahitaezkoa da, ondoren ideia egiaz abian jartzeko aukera handitzen duelako; horrek gazteak motibatu egiten ditu parte hartzera.

Beste alde batetik, oso garrantzitsua da nola ikasleek, hala irakasleek ere egoki parte hartzea.

Bibliografia

ETZKOWITZ, H. 2003. Research groups as "quasi-firms": the invention of the entrepreneurial university. *Research Policy*, 32, 109-121.

ETZKOWITZ, H., WEBSTER, A., GEBHARDT, C. & CANTISANO, B. R. 2000. The future of the university and the university of the future: evolution of ivory tower to entrepreneurial paradigm. *Research Policy*, 29, 313-330.

GIBB, A. 2012. Exploring the synergistic potential in entrepreneurial university development: towards the building of a strategic framework. *Annals of Innovation & Entrepreneurship* [Online],3. Hemen eskura: <http://www.journals.co-action.net/index.php/aie/article/download/16742/pdf> [2014ko irailaren 2an eskuratua].

GUERRERO, M., TOLEDANO, N. & URBANO, D. 2011. Entrepreneurial universities and support mechanisms: a Spanish case study. *International Journal of Entrepreneurship and Innovation Management*, 13, 144-160.

GUERRERO, M. & URBANO, D. 2010. The creation and development of entrepreneurial universities in Spain: An institutional approach, New York, Nova Science Publishers.

MORALES, S. T. 2008. El emprendedor académico y la decisión de crear Spin off: Un análisis del caso español.

ROTHAERMEL, F. T., AGUNG, S. D. & JIANG, L. 2007. University entrepreneurship: a taxonomy of the literature. *Industrial and Corporate Change*, 16, 691-791.

SPILA, J. C., BARRENECHEA, J. & IBARRA, A. 2011. Entrepreneurial culture, innovation and competences in higher education the Gaze program case. *Cultura emprendedora, innovación y competencias en la educación superior el caso del programa gaze*, 187, 207-212.

TUUNAINEN, J. 2005. Contesting a Hybrid Firm at a Traditional University. *Social Studies of Science*, 35, 173-210.

